

Ulpiano Uriarteren “*Eszelentzien Liburua*” eskuizkribuaren lehen argitalpena (*Libro de las eselencias del año 1902*): Argitalpen kritikoa eta argibideak

Juan Rekalde Izagirre

Arratia Institutua
juanrekalde@gmail.com

Abstract

First edition of the manuscript signed by Ulpiano Uriarte. It is the translation of the short book “Praise in honour of the Virgin Mary”, published at Delma’s printer’s in Bilbao. Uriarte, native of the small quarter of Uribe in Zeanuri (Biscaye), and due to his humble origins lacking any classical academic education, provides a good opportunity for a critical review of the peculiarities of western Biscaien speech, Arratian variety, in the year 1902.

Laburpena

Ulpiano Uriarteren izenez sinaturiko eskuizkribuaren lehen argitalpena. Bilboko Delmas argitaletxean ekoiztutako liburuxka baten zati baten itzulpena da: Ama Birjinaren omenez egindako loreak, eszelentziak, hain zuzen ere. Bizkaiko Zeanuri herriko Uribe auzoko semea zen Ulpianoren jatorri xumeari esker, hau da formazio akademiko klasikoaren urritasunari esker 1902 urteko Bizkaieraren mendebaldeko Arratia inguruko berbetaren berezitasunen azterketa kritikoa egiteko aukera ederra ematen du.

Keywords: Manuscript, Bizkaiera, Arratia

Gako hitzak: Eskuizkribu, Bizkaiera, Arratia

0. Sarrera

Artikuluaren xedea eskuizkribu honen lehen argitalpen faksimilea eta argitalpen kritikoa egitea da¹.

Argitalpen honetan doaz lehen aldiz eskuizkribuaren zenbait argitalpen desberdin: Lehenik eta behin, transkripzio kritikoa doa, ezaugarri linguistiko eta estilistiko originalei ahalik eta ondoen eutsi zaielarik. Bertan zenbait ohar argigarri ere gehitu zaio beharrezko iritzi diogunean. Ondoan, irakurle arruntarentzat baliagarri izan daitekeen edizioa dago, idazkera gaurkotuz, era ulergarriagoan, argitaratua. Hirugarrenik, Gaztelaniazko argitalpen originalari dagokion atala eman da, eta ondoren, otoitzez otoitz bi bertsioak, gaztelaniazkoa eta euskarazkoa, elkarren parean jarri dira. Azkenik, irudien bidezko edizio faksimilea. Dokumentu originalen argazkiak daude bertan ikerlariak jatorrizko bertsioa kontsulta eta ikuska dezan nahi izanez gero. JPG erako artxibategi moduan doaz irudiok.

Zehatzago emanda, hurrengoak izango da ikerketaren egitura:

¹ Eskerrak, zinez, ikerketa honetan lagundu nauzuen lankideoi: Josu De La Fuente, Iñaki Esparza, Sara Iturbe eta Angel Larrea.

1. Transkripzio kritikoa.
2. Transkripzio gaurkotua.
3. Ulpiano Uriarte: Zeanuriko Uribeko semea.
4. *Eszelentzien liburua*: Itzulpenaren originalaz.
5. Originala eta itzulpenaren arteko konparaketa.
6. Idazkera eta puntuazio zeinuak.
7. Hizkuntza arloko zenbait ohar.
 - 7.1. Fonologia eta grafiak
 - 7.2. Morfologia: Izen morfologia eta Aditz morfologia.
 - 7.3. Sintaxia.
 - 7.4. Lexikoa.
8. Irudien bidezko edizio faksimilea.
9. Gaztelaniazko irudien bidezko argitalpen faksimila.

Ulpiano Uriarteren eskuizkribua, *Libro de las eselencias del año 1902*, guk dakigunez behintzat, sekula argitaratu gabeko lana du. Ama Birjinaren ohorez egindako liburua da, bere eszelentziak laudatzeko hain zuzen ere. Lana Ulpiano Uriarte izenarekin izenpeturik badago ere, erdarazko izenburua duela eta,

gutziz argi dago itzulpen bat dena. Behar bada, gure ustez, gaztelaniaz buruz ikasitako testu baten itzulpena edo izan zitekeen, zeren lehenago egiten zen eran, Elizako otoitzak buruz ikasten baitziren ofizio erlijiosoetan ozen errezitatzen. Azterketa sakonagoa burututa ez da zalantza izpirik, gaztelaniatik egindako itzulpena dela baieztatzeko, zeren gaztelaniazko lexikoa erruz baitarabil eta sintaxi erromanikoa ere ageri-agerian dago hainbat perpausetan. Baina hala eta guztiz ere, elizaren bidez jasotako jatorri kultudun hizkuntzaren ondoan zabal-zabal eginda daude Arratiako herri berbetaren ezaugarriak hizkuntzaren maila guztietan. Gure ustez buruz ikasitako errezu baten itzulpena da.

Itzulpenaren originala aurkitzeko lehen ahaleginak "Libro de las excelencias" izenburutik tiraka egin ziren. Emaizta argirik ez zen aurkitu. Euskarazko otoitzaren atzetik datorren gaztelaniazko esaldia ordea, "*Devoción de la corona de las doce estrellas de Maria Santísima para los ejercicios del mes de Mayo y Novena a su Corazón Santísimo e Inmaculado*", giltzarri gertatu zen originala aurkitzeko orduan. Izenburu hau duen liburua Bilboko Delmas moldiztegian argitaratu zen 1863. urtean. Hango otoitzen itzulpenak dira Ulpiano Uriartek idatzitako liburuxka honetakoak.

Liburua egilearen birlobaren alaba den Sara Iturberen bidez heldu zen gure begietara, 2010eko martxoaren 16an. Liburuxkaren azalean idazlea nor den argi badago ere Ulpiano Uriarte izenaren ondoan beste izen bat ere ageri da: Adrian Uriarte. Atzerago ere, izen bera dago idatzita, liburuxkaren azken orrialdean. Badakigu jakin, Ulpiano semea zela Adrian Uriarte, eta ematen du hark eginak direla sinadura biak. Lehenengo orrian lehen abizena baino ez dakar, azkenean ordea, bigarrena eta guzti dago: Adrian Uriarte Orbezu.

Benetan ote da Ulpiano Uriarte itzulpenaren egilea? Ez dago arrazoirik besterik pentsatzeko baina... elizgizona ez izanik, nolatan ausartu zen holako behar bat burutzera? Emaiztak frogatzen du hala ere, izan zuela, bai, kultura aldetiko behar zen prestakuntza holako proiektua aurrera ateratzeko. Aldi berean baina, zalantza barik, idazkeran badira zenbait ezaugarri garai hartako eta lehenagoko eliz formaziodun eta kultura maila handiko idazleen mailako ez dela frogatzeko. Besteak beste ortografia ez normalizatua (huts ortografikoak euskaraz zein gaztelaniaz), zalantzak eta bazilazioak, berba herrikoiak, erdarazko hitzak zuzen zuzenean emanik...

1. Transkripzio kritikoa

1.1. Liburuaren deskripzioa

Formatoa: 16 orrialde, 11 cm x 15,50 cm tamainakoak. Marroi kolorean.

Azala: Izenburua: Libro de las Eselencias del año 1902.

Egilearen datuak: Ulpiano Uriarte.

Azpian idatzita: Adrián Uriarte. Beste idazkera eta luma desberdin batez idatzia.

Testua:

1. orrialdea: Gurutzea margotuta, eta kaligrafia ariketa ematen duen zerbait, zirriborro antzekoa.

2. orrialdetik 10.era: 12 Eszelentziak, (Eselencie).

11 eta 12.ean: Ofrezimentua. (Ofrecimentue).

13.ean: Devoción, gaztelaniaz dago. (Devocion)

14.ean: Gurutze bi eta "J" hizki handi bat

Atzeko azala: Adrián Uriarte Orbésua (azken hitz hau nekez irakur daiteke) semearen izen abizenak idatzirik. Ez da liburuxkan erabilitako idazkera bera.

1.2. Transkripzioa

Libro de las eselencias del año 1902

Ulpiano Uriarte

1ª Eselencie

Erreguiñe aragui eta Jangoicoen ama, sure coroa gustis preciosoen lelengo eselencie da, isen siniala escojidia andra gustien artian Jangoicoen semena (*sic*)² ama gustis dichosazat.

Ave M^a

2ª

Erreguiñe gustien Erreguin eta Jangoicoaren ama, sure coroa sagraduen bigarren eselencie da trinidad gustis santuec edertu sendusela cabu bagaco doe pribilijios eta birtutes beste criature³ iñor baño gueiago.

Ave M^a (sic)

² 'semearena' esan nahi du.

³ Azken "e" 'criatur' berbatik banatuta dago.

3^a

Ereguiñe eta Jangoicoaren ama sure coroa araguien (?) irugarren eselencie da, sortu siniala⁴ milagros eta grasie aparteco bategas pecatu brijinalen (sic) mancha bagaric⁵.

Ave M^a

4^a

Angueruen Erreguiñe gustis argui eta Jangoicoaren ama sure coroa altuen laugarren eselencie da, erregue artetic⁶ jayoa isen arren eta aurreti milagros iregarrie isen arren isen sineala criature gustietatic umildiena (sic).

Av. M^a

5^a

Erreguiñe alta eta sagradia da Jangoicoaren ama sure coroa presiosoan⁷ bosgarren eselencie da, Jangoicoaren espirirituen grasien eta Virtutes sortu sala sугan Jangoicoaren⁸ semea munduen erredenciñoraco alcanjelu aragui baten esanagas beste bagaric.

Av. M^a

6^a

Erreguiñe gustis santa da Jangoicoaren ama sure coroa miragarrien seigarren eselencie da, emon senduela arguitera seure seme Jangoicoscoa (sic) min dolore eta naibagueric arean bagaric Jangoico gustis altuec berac lagunduta.

Ave M^a

7^a

Erreguiñe escojidia eta Jangoicoaren ama sure coroa arguisuen (sic) saspigarren eselencie da, ama eguiascoa isen basinian bere guelditu siniala egusquie bera baño garbiago eta arguiago donsella semea jaio baño lenago jayotzan eta jayo esqueru.

Ave M^a

8^a

Erreguiñe eta Jangoicoaren ama sure coroa estimau bere esin leien sortzigarren eselencie da, euqui senduela esegas bardindu esin leien

⁴ Azken berba biak lotuta daude.

⁵ Azken berba biak lotuta.

⁶ "c" zirriborrotuta dago.

⁷ Azken -a- gainetik zuzenduta dago, -e- jarririk.

⁸ "Jangoicoan ganetik" zuzenduta.

dichia Jangoico gustis altuen semea alimentetaco sure bular gustis garbietan seugas Virjinal presiosoagas.

Av. M^a

9^a

Ceruetao erreguiñe da Jangoicoaren ama sure coroa comparau bere esin lei arren⁹ bederatzigaren eselencie da, euqui senduela dicha sorionecoa Jangoicoaren semea seinchoa¹⁰ *eguinic* sure conture entregau eta bere amatasunesco ardurepean bacarric seunquenean.

Av. e M^a

10^a

Erreguiñe gustis bigun eta Jangoicoaren ama sure coroa gustis aberatzaren amargarren eselencie da, euqui senduela dicha gustis altue Jangoicoaren semeac suri agoa betean ama gueitutea bere amodioagaitic eracusten eutzesala bere zeruetaco misterio escutuac.

Ave M^a

11^a

Erreguiñe gustis bedinquetea eta Jangoicoaren ama sure coroa errealarren amaicagaren¹¹ eselencie da, sure seme gustis altue Jesusec crutzean¹² il eta aita eternoagana joatorduen nombrau senduesala Adanen [*aurretik < zeinuaren antzeko bat darama goiko aldean*] seme alaba gustien ama eta consolatzallazat.

Ave M^a

12^a

Erreguiñe gustis poderosea eta Jangoicoaren ama sure coroa gustis gloriosoen [*amaiga zirriborrotuta*] amabigarren eselencie da, sure amodiosco eriotza bigunen bitartes isen siniala altzaue ceruetao angueruen artetic gorago gorpua da arima trinidad santisimen tronuen alboan coronetan sendusala criature gustien jabe eta erreguiñe.

Ave M^a

⁹ Berba biak batera idatzirik daude.

¹⁰ Ez dago guztiz argi, zuzenketa bat du, eta bertan "a" bat irakur liteke.

¹¹ Gainean dauka 2. "r" erantsita.

¹² Gainean dauka 'u' erantsita: "curutzean".

Ofrecimentue

Onec amabi abemarioc ofrecietan deutzadas maria (sic) Virjina gustis santuen coroaren amabi eselenciei seineri erregututen deutzadas¹³ isen deite¹⁴ gueure bitarteco bere seme gustis presioso eta¹⁵ gueure Jaun Jesucristogas emon daigun jubilioso (sic) eta gueure pecatu gustien parcasiñoa baita bere induljeciec (sic) eta parcamen aita santu erromacoac cristinau fiel gustiei onec abemarioc erresetan dituesan bacochean emonic dauquesanac Virjine santa beroni erregututen deutzegule bere meresimentuec eta eselenciec diriala mediante alcansau deigule bisitza ombategas eriotza ombat. amen. (sic)

Devocion

De la corona de las doce estrellas de Maria santisima para los egercicios del mes de Mayo y nobena a su corazon Santisimo e inmaculado (sic).

*Ceánuri 1 de Enero
1902*

2. Transkripzio gaurkotua

Libro de las excelencias del año 1902
Ulpiano Uriarte.

1. eszelentzia (bikaintasuna)

Erregina haragi eta Jaungoikoaren Ama, Zure koroa guztiz preziosoaren lehenengo eszelentzia da izan zinala eskojidea (aukeratua) andra guztien artean Jaungoikoaren Semearen Ama guztiz ditxosatzat.

Abe Maria

2.a

Erregina guztien Erregina eta Jaungoikoaren Ama, Zure koroa sagraduaren bigarren eszelentzia da Trinitade guztiz Santuak edertu zinduzala akabu bagako doe pribilejiatu eta birtutez beste kriatura inor baino gehiago.

Abe Maria

3.a

Erregina eta Jaungoikoaren Ama, Zure koroa haragien hirugarren eszelentzia da sortu zinala milagroaz eta grazia aparteko bategaz pekatu birjinalaren mantxa bagarik.

¹³ "deutzadas" gainetik idatzita dago, zuzenduta.

¹⁴ "t" hizkiak goiko marra trabesa falta du.

¹⁵ "t" hizkiak goiko marra trabesa falta du.

Abe Maria

4.a

Aingeruen Erregina guztiz argi eta Jaungoikoaren Ama, Zure koroa altuaren laugarren eszelentzia da, Errege artetik jaioa izan arren eta aurretik milagroaz iragarria izan arren izan zinala kriatura guztietatik umilena.

Abe Maria

5.a

Erregina alta eta sagradea da Jaungoikoaren Ama, Zure koroa preziosoaren bosgarren eszelentzia da Jaungoikoaren espirituaren graziaren eta birtutez sortu zala Zugan Jaungoikoaren Semea munduaren erredenzinorako arkangeru haragi baten esanagaz beste bagarik.

Abe Maria

6.a

Erregina guztiz santa da Jaungoikoaren Ama, Zure koroa miragarriaren seigarren eszelentzia da emon zenduala argitara zeure seme Jaungoikozkoa min dolore eta nahibagerik arean bagarik Jaungoiko guztiz altuak berak lagunduta.

Abe Maria

7.a

Erregina eskojidea eta Jaungoikoaren Ama, Zure koroa argitsuaren zazpigarren eszelentzia da Ama egiazkoa izan bazinan bere gelditu zinala eguzkia bera baino garbiago eta argiago Dontzeila Semea jaio baino lehenago jaiotzan eta jaio ezkeru.

Abe Maria

8.a

Erregina eta Jaungoikoaren Ama, Zure koroa estimau bere ezin leien zortzigarren eszelentzia da euki zenduala ezegaz bardindu ezin leien ditxea (poza) Jaungoiko guztiz altuen Semea alimentetako zure bular guztiz garbietan zeugaz birjinal preziosoagaz.

Abe Maria

9.a

Zeruetako erregina da Jaungoikoaren Ama, Zure koroa konparau bere ezin lei arren bederatzigarren eszelentzia da euki zenduala ditxa zorionekoa Jaungoikoaren Semea seintxoa

eginik zure kontura entregau eta bere amatasunezko ardurapean bakarrik zeunkanean.

Abe Maria

10.a

Erregina guztiz bigun eta Jaungoikoaren Ama, Zure koroa guztiz aberatsaren hamargarren eszelentzia da euki zenduala ditxa guztiz altua Jaungoikoaren Semeak Zuri agoa betean Ama deitutea bere amodioagaitik erakusten eutsezala bere zeruetako misterio ezkutuak.

Ave M^a

11.a

Erregina guztiz bedeinkatea eta Jaungoikoaren Ama, Zure koroa errearen hamaikagarren eszelentzia da zure Seme guztiz altua Jesusek Kurutzean hil eta Aita Eternoagana joatorduan nonbrau (izendatu) zinduzala Adanen seme alaba guztien Ama eta kontsolatzailetzat.

Abe Maria

12.a

Erregina guztiz poderosea eta Jaungoikoaren Ama, Zure koroa guztiz gloriosoaren hamabigarren eszelentzia da Zure amodiozko heriotza bigunaren bitartez izan zinala altzaua zeruetako aingeruen artetik gorago gorputz eta arima Trinitate Santisimearen tronuaren alboan koronetan zinduzala kriptura guztien Jabe eta Erregina.

Abe Maria

Ofrecimentua

Honeek hamabi abemariok ofreziduten deusadaz Maria Birjina guztiz Santuaren koroaren hamabi eszelentziei zeineri erregututen deusadaz izan daiten geure bitarteko bere Seme guztiz prezioso eta geure Jaun Jesukristogaz emon daigun jubiloso eta geure pekatu guztien parkazinoa baita bere induljentziak eta parkamen Aita Santu Erromakoak kristinau fidel guztiei honeek abemariok errezetan dituezan bakotxean emonik daukazanak Birjina Santa beroni erregututen deutsegula bere merezimentuak eta eszelentziak dirala mediante alkantzau daigula bizitza on bategaz heriotza on bat. Amen.

Devoción

De la corona de las doce estrellas de María Santísima para los ejercicios del mes de Mayo y Novena a su Corazón Santísimo e Inmaculado.

Ceánuri 1 de Enero
1902

3. Ulpiano Uriarte: Zeanuriko Uribeko Semea

3.1. Biografia

Ulpiano Uriarte Zeanuriko Uribe auzoan, Añibarro-Dañonena baserrian jaio zen 1853. urtean. Bere aita, Prudentzio Uriarte Agirre-Lezeaga izan zen eta ama Josefa Antonia Zuluaga Lapatza.

Hiru anaia izan ziren: zaharrena, Pedro, erdikoa Justo (Argentinara joan zena) eta Ramon Ulpiano, gazteena.

Ramon Ulpiano, Ulpiano izenez sinatzen zuena, Maria Orbezua Madariagarekin ezkondu zen 1889 urtean. Seme alaba bi izan zituzten: Adrian Uriarte Orbezua eta Regina Uriarte Orbezua. Ulpiano Uriarte 1920ko uztailaren 15ean hil zen.

Ezkontza partidean dakarrenez, Zeanuri Elizateko Uribe auzoko Añibarro-Dañonena baserrian jaio eta bizi izan zen.

Baserrian bertan Sara Iturbek, Ulpiano Urtareren bilobak, aurkitutako dokumentazioa honakoa da: herentziak, ezkontza-kapitulazioak, alkar poderosoak.

Ez zen izan familia pobrea antza, zeren Justo anaiari Argentinara joan zenean diruaz gain arropak ere “adecuadas a su posición” eman baitzizkion. Dokumentazioaren arabera gainera, badakigu “kriduak” ere izan zirela etxe hartan. Ulpiano eta Maria de Orbesuaren ezkontza kapitulazioetan ere (Villaroko notaritzako dokumentua) bere ama zen Josefa de Zuluaga y Lapatzak emandako dotean, beste hainbat gauzen artean zehazten da ezkonberriei eman zirela “*veintitrés camisas (120 pesetas), un vestido de novia (43 pesetas) eta diez y ocho vestidos (116 pesetas)*”. Ez zen edonolakoa Uribeko familia!



Añibarro-Dañonena baserriaren argazkia



Zeanuriko Uribe auzoa gaur egun

Euren semea izan zen Adrian ere Uribeko eskoletako fundatzaileetakoa izan zen. Bertako eskolan (txokoa) gaur egun oraindik eskegita


dagoen argazkian ikus daiteke euren semea, Adrian Uriarte Orbesua izan zenaren argazkia.



Uribeko eskola gaur egun



Adrian Uriarte Orbesua




Uribeko eskolako fundatzaileak


Fede handiko gizona izan behar zuten uriartetarrak, zeren familian gogoratzen dutenagatik jakin baitakigu aitita eta birraititak, Ulpiano eta Adrian, Adorazinoko taldean sartuta zeudela eta gauetako errezoak egiten zituztela. Helburu horrekin sarri Espainian zehar zenbait bidaia ere egin zituzten.

Baina zer da “Adoración nocturna” elkarte? Otoitz egiteko lehenago ohitura da lagun taldea gauetz, hilean behin edo gehiagotan, elizan batu eta otoitzean elkarrekin egiten zuten. Baina erantzun zehatzagoa jakiteko izen bereko web gunera jo dugu, <http://www.adoracion-nocturna.org> eta hauxe da hango lehen orriko definizioa:

“Una asociación de creyentes que, reunidos en grupos se turnan velando en las horas de la noche para adorar a Dios en representación de toda la humanidad y en nombre de toda la Iglesia, a través de Cristo y para agradecer al mismo Cristo, Dios y Hombre, su presencia en el Sacramento que los une al Sacrificio redentor”.

Ulpiano Uriarteren etxean aurkitutako dokumentuen artean, gaztelaniaz idatzita, elkartearen izena duen honako dokumentua dago: *La adoración nocturna ¿Qué es?*





Fr. Serafin Linaresek, “comisario Apostólico de la Orden de Menores” zelakoak, sinatutako dokumentu hau Jesusen Bihotzaren omenezko otoiitez osatuta dago.

Bada etxeko dokumentazioaren artean otoiitz elkarte honi dagokion beste dokumentu hau ere, baina hau latinez idatzia: *Praeses et Officiales Archisodalitalis Adorationis Nocturnae Ssmi Sacramenti*.

4. Eszelentzien Liburua: Itzulpenaren Originalaz

Historian zehar asko izan dira literatura erlijiosoaren arloan Ama Birjinaren koroa eta haren eszelentziak lantzen dituzten testuak. XII. mendetik hasi eta gaur egun arte datorren tradizioa da. Hona zenbait adibide:

- San Bernardo de Claraval (†1153) “Homilias sobre las excelencias de la Virgen Madre”. Homilía 4, 8-9: Opera Omnia, edición cisterciense

- Juan Varela de Salamanca, “La vida y excelencias & milagros de la sacratissima virgen Maria nuestra señora”. Sevilla, 1525.

- José de Jesús María, “Historia de la vida y excelencias de la Sacratissima Virgen Maria”. Google Liburuak, 1698.

- Pedro de Padilla, “Grandezas y excelencias de la Virgen”. Editor: Vega y Compañía, 1806.

- Olerkiak: Alfonso Alvarez de Villasandín, “Excelencias De La Virgen”.

- Kantuak: Juan de Zaragoza González, “Discurso de excelencias de la Virgen Nuestra Señora, y de su Immaculada Concepcion dispuesto en cinco cantos”.

- Otoiitzak: San José de Calasanz, “Corona de las doce estrellas”.

- “Devoción de las 7 excelencias a la Virgen del Carmen”.

- “Las 7 excelencias de María Santísima”.

- “Corona de los 7 dolores” ...

Eskuizkribua itzulpena dela jakinik gaztelaniazko jatorrizko testua bilatzeari ekin genion liburuskaren izenburutik hasita. Berehala “*Corona de las doce estrellas*” deitutako otoiitzarekin egin genuen topo. San José Calasanz-ek (1557-1648), “Escuelas Pías” direlakoan sortzaileak, 1628 inguruan sortu zuena. Tradizio katolikoan esan ohi denez, Ama Birjina Santuari egindako otoiitz gozonenetakoa da ¹⁶. Gaur egun oraindik ere paperezko triptiko itxuran argitaratzen jarraitzen da. Argitalpen honen irudi nagusi eta bakarra hamabi izarrez osaturiko koroa batez inguratuta dagoen Ama Birjina da.

Koroan ageri diren hamabi izarrek tradizio zahar-zaharra dute. Bibliako Testamentu Berriko Apokalipsi liburuan, 12. kapituluan, datoz aipatuta lehen aldiz:

“*Señale handi bat agertu zen zeruan: emakume bat, eguzkiz jantzia, ilargia oinazpian eta hamabi izarreko koroa buruan. Haurdun zegoen, eta erdiminez eta haurgintzako oinazez garrasika ari zen.*”

Geroago San Joan Ebangelistak ere kontu bera aipatu zuen. Esku arteko otoiitzaren lehen egileak, San Jose Calasanzek, honako hau idatzi zuen honetaz ¹⁷:

“*La corona de la Inmaculada Concepción de la Santísima Virgen alude a aquella misteriosa corona de doce estrellas con la cual vio ya san Juan Evangelista coronada la cabeza de aquella Reina, que los santos Padres tienen comúnmente por la Virgen María. Contiene doce Avemarias en honor de las doce gracias que la Santísima Trinidad le concedió, es decir cuatro el Padre Eterno, cuatro el Hijo y cuatro el Espíritu Santo, y tres Padrenuestros.*”

¹⁶ Informazio hau Devocionario Católico, <http://www.devocionario.com> helbide elektronikoan jaso da.

¹⁷ *Ibidem*

Hauk dira San Jose Calasanz *Corona de las 12 estrellas* oititz ezagunak. Calasanz santuak zioenez, berari antza, oititz honen bidez eskatutako graziarik ez omen zitzaion behin ere ukatu.

Alabemos y demos gracias a la Santísima Trinidad que nos manifestó a la Virgen María vestida del sol, con la luna bajo sus pies y una corona misteriosa de doce estrellas sobre su cabeza. Por todos los siglos de los siglos. Amén.

Alabemos y demos gracias al Padre Eterno, que escogió a la Virgen María por su Hija. Amén. Padrenuestro...

Alabado sea el Padre Eterno, que predestinó a la Virgen María por Madre de su divino Hijo. Amén. Dios te salve...

Alabado sea el Padre Eterno, que preservó a la Virgen María de toda culpa en su Concepción. Amén. Dios te salve...

Alabado sea el Padre Eterno, que adornó a la Virgen María con todas las virtudes en su Nacimiento Amén. Dios te salve...

Alabado sea el Padre Eterno, que dio a la Virgen María por compañero y Esposo purísimo a San José. Amén. Dios te salve... Gloria...

Alabemos y demos gracias al Hijo de Dios, que escogió a la Virgen María por su Madre. Amén. Padrenuestro...

Alabado sea el Hijo de Dios, que se encarnó en las entrañas de la Virgen María y en ellas habitó nueve meses. Amén. Dios te salve...

Alabado sea el Hijo de Dios, que quiso ser educado por la Virgen María en su infancia. Amén. Dios te salve...

Alabado sea el Hijo de Dios, que reveló a la Virgen María los misterios de la redención del mundo. Amén. Dios te salve... Gloria...

Alabemos y demos gracias al Espíritu Santo, que recibió a la Virgen María por su Esposa. Amén. Padrenuestro...

Alabado sea el Espíritu Santo, que reveló a la Virgen María, antes que a otro, el nombre suyo de Espíritu Santo. Amén. Dios te salve...

Alabado sea el Espíritu Santo, por cuya obra fue la Virgen María, a un mismo tiempo, Virgen y Madre. Amén. Dios te salve...

Alabado sea el Espíritu Santo, por cuya virtud fue la Virgen María templo vivo de la Santísima Trinidad. Amén. Dios te salve...

Alabado sea el Espíritu Santo, por el cual fue la Virgen María ensalzada en el cielo sobre todas las criaturas Amén. Dios te salve... Gloria...

Edozelan ere, oititz honetako edukiak ez datoz bat Ulpiano Uriarteren errezu edo oititzekin. Hemengoak Aita Eternoari, Semeari edo Izpiritu Santuari

dedikatuak dira haiek, ordea, izenburuak dioenez, Amabirjinaren eszelentzien gainekoak dira.

Zer dira bada, eszelentziak?

Orotariko Euskal Hiztegiak (OEH) hauxe dakar eszelentzia, ez eszelentzi, berbaren esanahiaz:

eszelentzia: *exzelentzia, egzelenzia, ekzelenzia, exelentzia .*

◆**Excelencia.** ***Bere lehen kreaizoneko dignitate eta exzelentzia guzia gal zezan [gizonak].** Lç Adv * 8r. **Elekziona haur maiz deitzen da exzelentzia predestinazione [...]** skriptura sainduan ere. Lç ABC I 2v. **Zure Semearen exzelentzien admiratzeko. EZ Man II 177. Dala Paternosterren exzelentzia ain andia. Cap 145s. Geientasunari edo ekzelenziari [...]** zor zaion laudorioa. SP Phil 221 (He 222 *exzelentziatzko merezimenduari*). **Sakramentu onen exzelentzia eta anditasuna. OA 153. Santu bien antza, gaindiak edo egzelenziak. Cb Just 3 (117 egzelenzien). Jaunaren exzelentzia edo gainde au. AA III 336.**

Ez dago berba horren definiziorik gainontzeko euskal hiztegi entziklopedikoetan. Ikus dezagun, besterik ezean, Real Academia Españolaren Hiztegiak ematen duen definizioa¹⁸:

1. *femenino. Superior calidad o bondad que hace digno de singular aprecio y estimación algo.*
2. *femenino. Tratamiento de respeto y cortesía que se da a algunas personas por su dignidad o empleo.*

Maria Molineren *Diccionario del Uso del Español castellano* hiztegiak¹⁹ beste hauxe dakar:

1. *f. Cualidad de excelente.*
2. *Buena cualidad: "Nos ha cantado las excelencias de este vino. La belleza, la generosidad, el talento y otras excelencias". Virtud.*
3. *(con "su" o "vuestra") Tratamiento honorífico a que tienen derecho oficialmente las personas a quienes corresponde el de "excelentísimo señor".*

Tratamenduari dagozkion esanahiak alde batera utzita, esan liteke bada, eszelentzia dela, zerbaitek duen ontasun edo kalitate gorenagatik, hau da bikaintasunagatik, merezi duen estimu handia. Kasu honetan, Ama Birjinaren bikaintasunaren ezaugarriak dira gorai patzen direnak. Historikoki horren garrantzitsua izan den oititza izanik, ez ote zuen inoiz beste inork lehenago oititza itzuli?

Izan litekeena da eszelentzia berba erabili beharrean beste hitz batez itzulia egotea nonbaiten San Jose

¹⁸

http://buscon.rae.es/draeI/SrvltConsulta?TIPO_BUS=3&LEMA=excelencia

¹⁹ <http://www.diclib.com/cgi-bin/d1.cgi?l=es&base=moliner>

Calasanzek sortutako otoitza eta guk ez aurkitzea. Auskalo.

Eszelentzien liburuaren originala bilatu guran Ulpiano Uriartek liburuaren amaieran gaztelaniaz idatzitako testua abiapuntutzat hartu zen. Hurrengo esaldia hain zuzen:

“Devoción de la corona de las doce estrellas de Maria Santísima para los ejercicios del mes de Mayo y Novena a su Corazón Santísimo e Inmaculado”.

“Devoción” delakoa otoitz mota bat da, “devocionario” izeneko otoitz liburu handiago baten zatia izan ohi dena. Ulpiano Uriarteren liburuan euskarazko otoitzaren testuaren amaieran dagoen esaldi hau gaztelaniazko originalaren otoitz liburu osoaren izenburua da. Gure “hamabi eszelentziak”, liburu horren (debozionarioaren) zatitxo baina ez da.

Liburua Bilboko Delmas etxean 1869.urtean argitaratu zen (64 orri)²⁰. Liburuaren izenburu osoa hurrengo da:

DEVOCION
DE LA
CORONA DE LAS DOCE ESTRELLAS
DE
MARIA SANTÍSIMA
para los ejercicios del mes de Mayo
Y NOVENA A SU CORAZÓN SANTÍSIMO É
INMACULADO
PARA

la conversion (sic) de los pecadores, que la
confraternidad
erigida bajo este título en la basílica de Santiago
de esta villa, practica en los últimos nueve días (sic) del
mismo mes en el ejercicio de las tardes

Bilbao: Imp y lit. de JUAN E. DELMAS, Victor 1.
1863

186. urtekoa da guk eskuratutako liburua, baina bada edizio zaharragoa 1854 urtean egin Juan Ernesto Delmas argitaletxean. Iruñako *Hermanos Menores Capuchinos de la provincial de Navarra, Cantabria y Aragón* erakundearen liburutegian dago ale bat, guk dakigunez. [biblioteca@capuchinosnavarra.org]. Eta baita edizio berriago bat ere 1902 urtean egin.

Ezin izan da ale hauetako informazioarekin alderatu baina hirurek izenburu bera dutenez (oso-osorik berdinak baitira) 1869. urtekoaren berdina direla pentsatu behar dugu.

²⁰ Informazio hau bilatzeko orduan ezinbesteko izan dut Arratia BHIko Josu De La Fuente erlijio irakaslearen laguntza.

5. Originalaren eta itzulpenaren arteko konparaketa

5.1. Testuaren transkripzioa

Liburuaren izenburu osoa:

DEVOCION DE LA
CORONA DE LAS DOCE ESTRELLAS
DE MARIA SANTÍSIMA
para los ejercicios del mes de Mayo
Y NOVENA A SU CORAZÓN SANTÍSIMO É
INMACULADO PARA

la conversion (sic) de los pecadores, que la
confraternidad erigida bajo este título en la basílica de
Santiago de esta villa, practica en los últimos nueve días
(sic) del mismo mes en el ejercicio de las tardes

Bilbao: Imp y lit. de JUAN E. DELMAS, Victor 1.
1863

53.enetik 60.erainoko orrialdeak:

**DEVOCION DE LAS DOCE EXCELENCIAS DE
MARIA SANTÍSIMA**

Una gran señal apareció en el cielo, dice San Juan: “una mujer vestida de sol, que tiene la luna bajo de sus piés, y su cabeza está adornada de una corona de doce estrellas.”

¡Símbolo grandioso! que representa á MARÍA en el trono augusto, que ocupa en el empíreo. Contigua á la divinidad, y rodeada de sus inmensos resplandores, se halla en efecto vestida del sol. Sobrepueta á todas las criaturas tiene la luna á sus piés (sic). Forman su corona doce estrellas; pero ¿quién, de los mortales podrá resistir su brillantez?

Celebremos con ardor doce excelencias, que distinguieron á MARÍA en la tierra, para que obtengamos la dicha de ver las doce estrellas, que forman su corona en el cielo.

PRIMERA EXCELENCIA.

La primera excelencia de vuestra preciosísima corona, imperial reina y madre de Dios, es que fuiste elegida entre todas las mujeres para madre felicísima del hijo de Dios.

SEGUNDA.

La segunda excelencia de vuestra sagrada corona, reina de reinas y madre de Dios, es que fuiste adornada por la beatísima Trinidad con infinitos dones, privilegios y virtudes, de que no hay ejemplar en criatura alguna.

TERCERA.

La tercera excelencia de vuestra imperial corona, reina y madre de Dios, es que fuiste concebida por prodigio y en gracia especial, con el privilegio y escepcion (sic) de la mancha original.

CUARTA.

La cuarta excelencia de vuestra alta corona, esclarecida reina de los ángeles y madre de Dios, es que aunque naciste de estirpe real y anunciada con prodigios, fuiste la más humilde de las criaturas todas.

QUINTA.

La quinta excelencia de vuestra preciosa corona, alta y sagrada reina y madre de Dios, es que concebiste al hijo de Dios por virtud y gracia milagrosa del espíritu divino, para el rescate del linage (sic) humano, a la voz y anuncio de un elevado arcángel.

SESTA. (sic)

La sexta excelencia de vuestra admirable corona, santísima reina y madre de Dios, es que diste a luz a vuestro divino hijo sin el más pequeño detrimento, dolor ni incomodidad, asistida por el mismo supremo.

SETIMA. (sic)

La sétima excelencia de vuestra refulgente corona, escogida reina y madre de Dios, es que aunque fuiste verdadera madre, quedaste más pura y tersa que el sol, virgen antes del parto, en el parto y después del parto.

OCTAVA.

La octava excelencia de vuestra inestimable corona, reina y madre de Dios, es que tuvisteis la incomparable dicha de alimentar con vuestra virginal y preciosísima leche, al Hijo del altísimo Dios.

NOVENA.

La novena excelencia de vuestra incomparable corona, reina del cielo y madre de Dios, es que fuisteis el custodio y la guarda feliz del hijo de Dios hecho niño y entregado todo El a vuestro maternal y único cuidado.

DECIMA.

La décima excelencia de vuestra riquísima corona, piadosa reina y madre de Dios, es que tuvisteis la altísima dicha, que el hijo de Dios eterno os llamase á boca llena su amantísima madre, comunicándoos con su amor sus arcanos celestiales.

UNDECIMA.

La undécima excelencia de vuestra soberana corona, benditísima reina y madre de Dios, es que vuestro altísimo hijo Jesús al irse á su eterno padre muriendo obediente en la cruz, os nombró amorosa madre y consuelo de todos los hijos de Adán.

DUODÉCIMA.

La duodécima y última excelencia de vuestra gloriosísima corona, potentísima reina y madre de Dios, es que fuisteis por el deliquio de vuestra dulce muerte transportada en cuerpo y alma gloriosa entre innumerables coros de celestiales espíritus, junto al trono de la beatísima Trinidad, coronándoos por reina y señora de todo lo criado.

OFRECIMIENTO

DE ESTA CORONA PARA TODOS LOS DIAS

Estas doce Avemarias (sic) ofrecemos á las doce excelencias de la corona de la virgen santísima María, madre de Dios y señora nuestra. á quien pedimos y suplicamos humildemente se sirva rogar é interceder por nosotros á su preciosísimo hijo y Señor nuestro Jesucristo, tenga a bien otorgarnos el jubileo plenísimo y remisión de todos nuestros pecados, y las indulgencias y demas (sic) perdones que los Sumos Pontífices han concedido á todos los fieles cristianos por cada vez que las rezaren á honra y gloria de la santísima virgen María a quienes pedimos y suplicamos por sus méritos y excelencias sea nuestra intercesora, para que alcancemos buena vida y buena muerte.

Amen.

5.2. Gaztelania eta euskarazko testuen arteko konparaketa

Pimera excelencia.

La primera excelencia de vuestra preciosísima corona, imperial reina y madre de Dios, es que fuiste elegida entre todas las mujeres para madre felicísima del hijo de Dios.

1ª Eselencie (sic)

Erreguñe aragui eta Jangoicoen ama, sure coroa gustis preciosoen lelengo eselencie da, isen siniala escojidia andra gustien artian Jangoicoen semena (sic) ama gustis dichosazat.

Segunda.

La segunda excelencia de vuestra sagrada corona, reina de reinas y madre de Dios, es que fuiste adornada por la beatísima Trinidad con infinitos dones, privilegios y virtudes, de que no hay ejemplar en criatura alguna.

2ª

Erreguñe gustien Erreguin eta Jangoicoaren ama, sure coroa sagraduen bigarren eselencie da trinidad gustis santuec edertu sendusela cabu bagaco doe pribilijios eta birtutes beste criature iñor baño gueiago.

Tercera.

La tercera excelencia de vuestra imperial corona, reina y madre de Dios, es que fuiste concebida por prodigio y en gracia especial, con el privilegio y escepcion (sic) de la mancha original.

3ª

Ereguiñe eta Jaungoicoaren ama sure coroa araguien (?) irugarren eselencie da, sortu siniala milagros eta grasie aparteco bategas pecatu brijinalen (sic) mancha bagaric.

Cuarta.

La cuarta excelencia de vuestra alta corona, esclarecida reina de los ángeles y madre de Dios, es que aunque naciste de estirpe real y anunciada con prodigios, fuiste la más humilde de las criaturas todas.

4ª

Angueruen Erreguiñe gustis argui eta Jaungoicoaren ama sure coroa altuen laugarren eselencie da, erregue artetic jayoa isen arren eta aurreti milagros iregarrie isen arren isen sineala criature gustietatic umildiena (sic).

Quinta.

La quinta excelencia de vuestra preciosa corona, alta y sagrada reina y madre de Dios, es que concebiste al hijo de Dios por virtud y gracia milagrosa del espíritu divino, para el rescate del linage (sic) humano, a la voz y anuncio de un elevado arcángel.

5ª

Erreguiñe alta eta sagradia da Jangoicoaren ama sure coroa presiosoan bosgarren eselencie da, Jangoicoaren espirirituen grasien eta Virtutes sortu sala sugan Jangoicoaren semea munduen erredenciñoraco alcanjelu aragui baten esanagas beste bagaric.

Sesta. (sic)

La sexta excelencia de vuestra admirable corona, santísima reina y madre de Dios, es que diste a luz a vuestro divino hijo sin el más pequeño detrimento, dolor ni incomodidad, asistida por el mismo supremo.

6ª

Erreguiñe gustis santa da Jangoicoaren ama sure coroa miragarrien seigarren eselencie da, emon senduela arguitera seure seme Jangoicoscoa (sic) min dolore eta naibagueric arean bagaric Jangoico gustis altuec berac lagunduta.

Setima. (sic)

La sétima excelencia de vuestra refulgente corona, escogida reina y madre de Dios, es que aunque fuiste verdadera madre, quedaste más pura y tersa que el sol, virgen antes del parto, en el parto y después del parto.

7ª

Erreguiñe escojidia eta Jangoicoaren ama sure coroa arguisuen (sic) saspigarren eselencie da, ama eguiascoa isen basinian bere guelditu siniala egusquie bera baño garbiago eta arguiago donsella semea jaijo baño lenago jayotzan eta jayo esquero.

Octava.

La octava excelencia de vuestra inestimable corona, reina y madre de Dios, es que tuvisteis la incomparable dicha de alimentar al Hijo del altísimo Dios.

8ª

Erreguiñe eta Jangoicoaren ama sure coroa estimau bere esin leien sortzigarren eselencie da, euqui senduela esegas bardindu esin leien dichia Jangoico gustis altuen semea alimentetaco sure bular gustis garbietan seugas Virjinal presiosoagas.

Novena.

La novena excelencia de vuestra incomparable corona, reina del cielo y madre de Dios, es que fuisteis el custodio y la guarda feliz del hijo de Dios hecho niño y entregado todo El a vuestro maternal y único cuidado.

9ª

Ceruetaco erreguiñe da Jangoicoaren ama sure coroa comparau bere esin lei arren bederatzigaren eselencie da, euqui senduela dicha sorionecoa Jangoicoaren semea seinchoa eguinic sure conture entregau eta bere amatasunesco ardurepean bacarric seunquenean.

Decima.

La décima excelencia de vuestra riquísima corona, piadosa reina y madre de Dios, es que tuvisteis la altísima dicha, que el hijo de Dios eterno os llamase á boca llena su amantísima madre, comunicándoos con su amor sus arcanos celestiales.

10ª

Erreguiñe gustis bigun eta Jangoicoaren ama sure coroa gustis aberatzaren amargarren eselencie da, euqui senduela dicha gustis altue Jangoicoaren semeac suri agoa betean ama gueitutea bere amodioagaitic eracusten eutzesala bere zeruetaco misterio escutuac.

Undecima.

La undécima excelencia de vuestra soberana corona, benditísima reina y madre de Dios, es que vuestro altísimo hijo Jesús al irse á su eterno padre muriendo obediente en la cruz, os nombró amorosa madre y consuelo de todos los hijos de Adán.

11ª

Erreguiñe gustis bedinquetea eta Jangoicoaren ama sure coroa errearen amaicagaren eselencie da, sure seme gustis altue Jesusec crutzean il eta aita

eternoagana joatorduen nombrau senduesala Adanen seme alaba gustien ama eta consolatzallazat.

Duodécima.

La duodécima y última excelencia de vuestra gloriosísima corona, potentísima reina y madre de Dios, es que fuisteis por el deliquio de vuestra dulce muerte transportada en cuerpo y alma gloriosa entre innumerables coros de celestiales espíritus, junto al trono de la beatísima Trinidad, coronándoos por reina y señora de todo lo criado.

12ª

Erreguiñe gustis poderosea eta Jangoicoaren ama sure coroa gustis gloriosoen amabigarren eselencie da, sure amodiosco eriotza bigunen bitartes isen siniala altzaue ceruetaco angueruen artetic gorago gorpuz da arima trinidad santisimen tronuen alboan coronetan sendusala criature gustien jabe eta erreguiñe.

OFRECIMIENTO DE ESTA CORONA PARA TODOS LOS DIAS

Estas doce Avemarias (sic) ofrecemos á las doce excelencias de la corona de la virgen santísima María, madre de Dios y señora nuestra. á quien pedimos y suplicamos humildemente se sirva rogar é interceder por nosotros á su preciosísimo hijo y Señor nuestro Jesucristo, tenga a bien otorgarnos el jubileo plenísimo y remisión de todos nuestros pecados, y las indulgencias y demas (sic) perdones que los Sumos Pontífices han concedido á todos los fieles cristianos por cada vez que las rezaren á honra y gloria de la santísima virgen María a quienes pedimos y suplicamos por sus méritos y excelencias sea nuestra intercesora, para que alcancemos buena vida y buena muerte. Amen.

Ofrecimentue

Onec amabi abemarioc ofrecietan deutzadas maria (sic) Virjina gustis santuen coroaren amabi eselencie seineri erregututen deutzadas isen deite gueure bitarteco bere seme gustis presioso eta gueure Jaun Jesucristogas emon daigun jubilioso (sic) eta gueure pecatu gustien parcasiñoa baita bere indulujeciec (sic) eta parcamen aita santu erromacoac cristinau fiel gustiei onec abemarioc erresetan dituesan bacochean emonic dauquesanac Virjine santa beroni erregututen deutzegule bere meresimentuec eta eselenciec diriala mediante alcansau deigule bisitza ombategas eriotza ombat. amen. (sic)

6. Idazkera eta puntuazio zeinuak

6.1. Laburdurak

- Ave Mª.

Abe Maria, Ama Birjinaren oroimenez gaztelaniaz egiten den otoitzaren laburdura da. Otoitzaren izenburua honako hiru era desberdinetan dator:

Ave Mª.

Av. Mª

Av. e Mª

Hiru era desberdinotara ematea holako testu laburrean formazio eta hizkuntzaren normalizazio eta alfabetizazio aldetiko hutsaren erakusgarri da zalantzarik gabe.

6.2. Zenbaki ordinalak

1ª Eselencie, 2ª, 3ª, 4ª, 5ª, 6ª, 7ª, 8ª, 9ª, 10ª, 11ª eta 12ª.

Oso bitxia da zenbakion erabilera: gaztelaniazko zenbaki ordinalak laburdura bidez idazteko modua erabiltzen du, genero femeninoaren aukeraketa eginez. Hau da, 'Primera excelencia' edo "1ª excelencia" izan beharko lukeena gaztelaniaz, euskaraz, lehen edo lehenengo eszelentzia, 1ª Eselentzie idazten du. Honek esan nahi du, zenbakiekin erabiltzen den " a " laburduraren esanahia ez dakiela femeninoa dela. Ed, gure -a mugatzaile edo artikulua irakurtzeko erabiltzen duela: lehenengoA, bigarrenA, hirugarrenA...

Beranduagokoa da, jakina, euskaraz zenbaki ordinalen laburdurak puntuen bidez (1. 2. 3.) egiteko jokabidea.

6.3. Maiuskulak, minuskulak, puntuazio zeinuak

Kontu honetan ere arauak erdizka betetzen dituela esan daiteke. Zenbaitetan hizki larriz ematen dituenak, era normalizatu egokian, beste paragrafo baten, edo inoiz baita paragrafo berean ere, hizki xehez ematen du:

Maiuskulaz:

Erreguiñe (1,2...), Jangoico (1,2...), Virtutes (5), Virjinal (8), Virjina/Virjine(13), Jesus (11), Adan (11), Jaun Jesucristo (13), Santisimo (14, gazt.), Maria (14, gazt.).

Minuskulaz:

erreguiñe(12) , maria (3, euskaraz), aita santu erromacoa (14), trinidad santisima (12), brijinal (3), Jangoicoaren semea (5), abemaria (13), amen (13).

Perpausen amaierako puntuaren ondoan ere minuskulaz idatzirik dakar *Ofrecimentue* deritzan otoitzean:

...eriotza ombat. amen (13).

Ez du bada puntuazio zeinuen araudia menperatzen. Nabaria da, oso, huts hau *Ofrecimentue* deritzon paragrafoan. Testuko paragrafo luzeena den honetan, 109 berba gaztelaniaz, 71 berba eta hogeit hamar berba idazkeran, ez dago ez koma ez puntu bat ere.

Egia da gaztelaniazko testua ere perpau bakararra osatzen duen paragrafoa dena, baina bada

desberdintasun handia: Hura legez idatzirik dago, arauak ondo jagonda daude, sei koma erabiltzen baitira. Euskerazkoan berriz, testua ulergarri egiteko beharrezko diren komak eta puntuak falta dira. Halako gabeziaz ere, itzultzailearen alde esan behar da, esaldiaren esanahia ondo ulertu egiten dela.

6.4. Azentua

Ez da azentuarentzat grafiarik erabiltzen euskarazko testuan. Euskaraz diren azentu mota nagusi bietarik, (tonala eta intentsitatezkoa), Arratiako berbetakoa, gaztelaniazkoaren antzekoena, intentsitatezkoa, bada ere, ez da azentuarentzat grafiarik euskarazko perpausetan. Bai ordea, gaztelaniazkoan. Gaztelaniazko zatian *tilde* bat baino ez dago, idazlearen jaioterriko herriaren izenean jarri duena, hain zuzen ere: *Ceánuri* (14). Ohituta zegoen nonbait bere herriaren izena gaztelaniazko idazkeran ikusten.

Ez da azenturik beraz, gaztelaniazko idazkera normalizatuan beharko luketen hainbat berbatan ere:

Devocion (15), *Maria* (15), *santisima* (15), *corazon* (15), *Santisimo* (15).

7. Hizkuntza arloko zenbait ohar²¹

Atal honetan testuaren hizkuntza mailako ezaugarri garrantzitsuenak landu dira, bide batez Arratiako berbetaren deskribapen laburra eginez. Ez da inondik inora hizkuntzaren azterketa exhaustibo eta sakon bat egin, horregatik, adibidez, aditz -edo deklinabide-tauletako aldaki guztiak jarri ordez, sail bakoitzeko esanguratsuenak baino ez dira jarri.

7.1. Fonologia

7.1.1. Bokalak

Arratiako berbetaren (eta Hegoaldeko euskakietako) ohiko bost bokalak dira hemen nagusi (a, e, i, o, u). Bokalismoari dagokionez, berbeta honetako ezaugarri esanguratsuenetakoa da -a mugatzaile singularra, beste eskualde askotan ez bezala, ia aldaketa gehiagorik gabe ahoskatzen dela. Ez dira egiten beraz beste lurralde batzuetan gertatzen diren aldaketak: (-*ea*; ez -ia, -ie, -í... -*oa*; ez -ua, -ue, -ú).

Adb. *semea* (5), *crutzean* (11), *arean* (6), *poderosea* (12), *Jaungoicoaren* (2), *seinchoa* (9)...

7.1.1.1. Diptongoak

- eu /au diptongoa

²¹ Arratiako berbakera, ahoskera eta abarri buruzko informazioa A. Larrea eta J. Rekalderen AIHren sarrerako "Arratia inguruko berbetearen deskribapen laburra" 43-76 orrietatik jaso da.

Diptongo honen ebakeran eremu garbi bi dagoz Arratian. Hegoaldean (Zeanuri, Areatza, Artea, Dima, Zeberio) eredu kultuenetik hurbilen dagoen forma, **au** diptongoa, egiten da: *aurre*, *aurrez*, *gaur*, *aurten*... Uriarterengan, zeaniztarra izanik, -*au* da nagusi: *aurreti* (4), *dauquesanac* (13).

Iparraldean, ostera (Igorre, Arantzazu, Lemoa eta Dimatik iparraldera), jatorrizko **au** > **eu** egiten da askotan: *geur*, *eurten*, *eurrez*, *eurre*, *eupetz*, *eutz*... Berdin aditz-partizipioetan ere: *pareu*, *likideu*, *akordeu*, *olgeu*, *kardeu*...

Uriartek ostera Zeanuriko erara ematen ditu, **au** diptongoz: *estimau* (8), *comparau* (9), *entregau* (9), *nombrau* (11), *altzaue* (12), *alcansau* (13).

- ei / -ai diptongoa

Joera bi daude ahozko berbetan:

a) ei > ai egitea. Batez ere Zeberio eta Zeanurin: *báye* (behia), *gorbáye* (Gorbeia), *láiteke* (leiteke), *gáitu* (geitu/deitu)...

b) ai > ei egitea: *seléye*, (zelai), *erréye* (arrai), *urdéye* (urdai). Aldaketa hau ez da sistematikoki gertatzen. Igorren eta Lemoan bietakoak entzun litezke: *seláye* eta *seléye*; *urdáye* edota *urdéye*.

Testu honetan ere bietarik daude :

ai: *daigun* (13)

ei: *gueitutea* (10)*deite*(13),*deigule* (13).

- Diptongoaren murrizketa

-**au** > a diptongo murrizketa gertatzen da, baina ez beti. Oso esanguratsua da, "jaungoiko" moduko izen garrantzitsu batean ere aldaketak eta alternantziak gertatzea. *jaungoico* 18 bider dakar, eta *jaungoico* ostera, 2 bider baino ez. Esan liteke idazleak jakin badakien arren zein den forma etimologikoa, kultua, nahiago duela edo berez atera egiten zaiola herrian ahoz erabiltzen dena: 'jaungoiko'. Tradizio idatzian ez zen horrela, Añibarrok mende bat lehenago beti idazten zuen 'jaungoiko'.

7.1.1.2. Bokak asimilazioak

Bokalen asimilazioak ez dira oso ugariak Arratiako berbetan. Bizkaieraren ekialdeko hizkeren aldean askoz gutxiago gertatzen dira.

a) a > e egiten da u /i ondoan zein aurreko silabetan daudenean

-a mugatzailea > -e

Arratiako berbetaren ahozko legeei jarraituz, zenbait aldaketa gertatzen dira amaierako "a" mugatzailean, aurreko silaban, "u" edo "i" bokalak daudenean.

Idazkera arautuan, gaur egunean, -a mugatzailea beti "a" idazten bada ere Arratiako berbetaren ahozko legeei jarraituz U. Uriartek "e" idazten du ia beti:

- *santuec* (2), *sagraduen* (2), *senduela* (10), *altue* (10,11), *joatorduen* (11), *tronuen* (12), *ofresimentue* (13), *meresimentuec* (13).
Salbuespena *escutuac* (10).

- *Eselencie* (1,2,3...), *grasie* (3), *iregarrie* (4), *egusquie* (7), *indulujeciec* (13). *Erreguiñe* (1,2,3....) (*Erreguiña* ere idazten du 13. eszelentzian).

Ez da a>e aldaketa egiten ez o ez e ondoan:

- *coroa* (1,2,3...), *Jaungoicoaren* (1,2,3...), *jagoa* (4), *Jangoicoscoa* (6), *eguiascoa* (7), *presiosoagas* (8), *sorionecoa* (9), *seinchoa* (9), *agoa* (10), *amodioagaitic* (11), *eternoagana* (12), *alboan* (13), *parcasiñoa* (13), *erromacoac* (13).

- *semea* (5), *arean* (6), *semea* (7,8,9,10), *gueitutea* (10), *crutzean* (11), *bacochean* (13), *ardurepean* (9), *betean* (10). Salbuespena: *artian* (1).

- la menderagailua

la > -le: Gehienetan -la bada ere, badira kasu bi: *deutzegule* (13), *deigule* (13), baina *sendusela* (13).

Nahiz eta testuan agertu ez, testua idatzia baita, ez ahozkoa, gauza bera gertatzen da berbeta honetan hurrengo kasuotan: Bat > bet: *léku bet*; izan aditzaren silaba bakarreko aditz laguntzaileak: *etorrí de...*; silaba bakarreko atzizkiak: *arrike*, *gixíke...*; deklinabideko morfemak: *erríre*, *níges*, *géuges*, *sarríten*; partizipioa + -ta: *ostúte*, *ikisíte...*; "ta" juntagailua > te: "*etórrí te esáten dotze*".

-Lexema barruko aldaketak

- *Virjine* (13), *iregarrie* (4), *isen* (4,7,13). Zalantzak zein handi diren argiro erakusten dute hurrengo adibideek, zeren eszelentzi berean, hau da, paragrafo berean, bi eretan ageri dira: *Virjine*(13) / *Virjina* (13).

- *criature* (2), *conture* (9), *ardurepean* (9).

Añibarro idazle arratiar handiari ere ahozko ohitura hau ondo menderatzen zuen idazteko arauari gailentzen zitzaion behin baino gehiagotan. M.P. Ziarrusta ikertzaileak²² erakutsi bezala ebanjelioetako testuetan *iperraldetic* edo *isserretan* bezalakoak idatzi zituen hiztegian ("Voces bascongadas") ordea *ipar* eta izar dakarren arren.

²² Maria Pilar Ziarrusta 1991: "Jesu Christoren lau evangelioak batera alcarturic" Pedro Antonio Añibarro. Labayru-BBK, Bilbo.

b) e > i asimilazioa

-a itsatsidun berben sisteman ez da aldaketarik gertatzen. -a organikodun berbak -a mugatzailea hartzean -ea egiten du Arratian eta idatzi ere horrela egin izan da tradizionalki. -a + -a > -ea *samea*, *ankea*, *elexea*, *bedinquetea*, *poderosea*...

Arau hori orokorra izanik, hainbat kasutan ez da betetzen:

1- Inesiboan, non kasuan ohiko den bezala ez da -ea sistema egiten: *jayotzan* (7).

2- Pluralean ez da -ea sistema egiten: *neskéa* / *néskak*; *alabéa* / *álabak*... Testuan ez da adibiderik jaso.

Emaitza zabalena Arratian, -ea bada ere, U. Uriarteren testuan badira arau honetatik aldentzen diren formak, -ia egiten dutenak: *escojidia* (1,7), *dichia* (8), *sagradia* (5). Zeanurin gaur egun oraindik, -ea ordeztu egiten da -a mugatzailearen aurreko silaban -i- edo -u- dagoenean: e > i (i, u + C + mugatzailea)

Aditzaren barruan *diriala* (13), *siniala* (1,3,7,12), baina baita *sineala* (4) ere.

c) Hurreko asimilazioak

Testuan ez da adibiderik jaso, baina egon badira Arratian.

Adb. a - a: arrabéa, asárratu...; i - i: gítxi, ítxi, ikísi, pribilijos (privilegio)(2)...; o - o: okoléa, ogorlókoa, ostóndu...; u - u: gusúrre, ukútu, úrrungoa...

7.1.1.3. Bokal disimilazioak

e+e>ei: pluralerako erabiltzen den -e- markaren eraginez sorturiko e-e bokal elkarketetan: *óneik* (honeek). Baina Uriarteren testuan: *Onec amabi abemarioc* (13) dakar. Ohikoak dira Arratiako berbetan *zarie* (zaree); *zinien* (zineen)... Arlo honetako adibide bakarra dugu hurrengo superlatiboa: *umildiena* (4) (umildeena).

7.1.2. Kontsonanteak

Hauek dira Arratia inguruan ahoskatzen diren fonemak gaur eguneko grafiaz idatzita:

1. Ezpainbikariak, herskariak: "b", "p"
2. Ezpain-horzkariak frikaria: "f"
3. Horzkariak, herskariak: "t", "d"
4. Txistukariak:
 - apiko-albeolarra edo hobikaria: "s"
 - bizkar-albeolarra: "z"
 - sabaiaurrekoak: "tx", "x"
5. Sabaikariak: "j", "ll"

6. Belarrak: “g”, “j”, “k”
7. Dardarkariak: “r”, “rr”
8. Albokariak: “l”, “ll”
9. Sudurkariak: “m”, “n”, “ñ”

Ezpainbikariak, herskariak: /b/, /p/

“b” eta “v” auzia. Euskaraz ez da “v” grafia erabiltzen hizkuntz arrotzetako berbetarako ez bada. Testu honetan ere, erlijiotik zuzen jasotako hitz kultu batzuek dute “v” grafia.

Ave (1,2,3...), *Virtutes* (5), *Virjinal* (8), *Virjina* (13), *Virjine* (13).

Gaztelaniazko azken paragrafoan oster, “nobena” idazten du “b”-z, gaztelaniaz “v” grafiaz idatzi behar bada ere. Aurrean izan balu testu originala pentsa liteke ez zuela huts hau egingo, “v” grafiaz baitago Delmasen argitalpenean.

Ezpain-horzkariak frikaria: /f/

Hiru dira testuko adibideak, eta hirurak gaztelaniazko berbak: *ofrecimentue* (13), *ofrecietan* (13), *fiel* (13). Ez dugu ahaztu behar baina, Koldo Mitxelenak esan bezala, euskarak kanpotik hartutako azken fonematarikoa izan arren, oso sustraituta dagoela Arratiako eskualdean eta erabilera zabal-zabala duela. Hona hemen ahozko adibide partida bat: *frakéa, iférra, ifíni, faltrikeréa-fartrikeréa, fátue, ferrándo, ferrán, feturéa, filótoa, firúe, foltzíkooa...*

Horzkariak, herskariak: /t/, /d/

eta / da:

Herskari biak, ahostuna eta ahoskabea, ondo bereizirik daude. Hala ere, perpaus kopulatioak egiteko erabiltzen den ohiko juntagailua hiru eratan ageri da: *eta, ta, da*.

Oro har *eta* etenaren ostean erabiltzen da. Berba artean *ta*. Aurreko hitzaren amaiera bokala, -n edo txistukari bada, ahoskabea ahostun egiten da, /t/ > /d/, *da*. Testu honetan baina, ez da lege hau betetzen: bokal artean ager daiteke *eta* zein *da* ere:

Bokal artean:

alta y sagrada reina y madre de Dios / Erreguiñe
alta eta sagradia da Jangoicoaren ama (5)
santísima reina y madre de Dios / Erreguiñe gustis
santa da Jangoicoaren ama (6)
reina del cielo y madre de Dios, / Ceruetaco
erreguiñe da Jangoicoaren ama (9).

Txistukariaren ondoren:

gorpus da arima trinidad santisimen tronuen
alboan (12).

Ikusten denez, kontu honetan ere ez dago jokabide finkorik, araudirik. Zeren bokal arteko zenbait “da” diren testuinguru berdinetan, beste batzuetan “eta” dago.

“a” bokalearen ostean: “santa da...” (6), “Erreguiñe alta eta...” (5).

“e” bokalearen ostean: “erreguiñe da...” (9), “jabe eta...” (12).

mentu / -mendu:

Kontsonante sudurkariaren ondoko horzkaria ahostuna izaten da euskalki gehienetan. Bizkaieraren ezaugarria da baina, ahoskabez egitea. Arau hau beti betetzen da: *ofresimentua* (13), *meresimentuec* (13).

Txistukariak

-Igurzkari apiko-albeolarra edo hobikaria /s/

Mendebalde edo bizkaiera euskalkian gertatzen den legez, ahoz, ez da “z”/s/ - “s”/s/ bereizketarik egiten. Bigarrenaren aldeko neutralizazioa dago, bera baino ez da ahoskatzen eta “s” grafiaz idatzirik dago kasu gehienetan:

/s/:

“s”: *sure* (1)²³, *siniala* (1), *sendusela* (2), *bategas* (3), *isen* (4), *sure* (5), *senduela* (6), *egusquie* (7), *esegas* (8), *esin* (9), *suri* (10), *gustien* (11), *amodiosco* (12), *dauquesanac* (13) ...

“z”: *zeruetaco* (10), *deutzadaz* (13). Bi kasuotan baino ez du “z” grafia erabiltzen txistukari igurzkaria adierazteko. Besteetan “z” grafiak /c/ “tz” edo /ç/ “ts” adierazten du. Txistukarietan dituen zalantzak zein sakon diren ikusteko hona adibide erakusgarria: paragrafo berean, 13. eszelentzian, *deutzadaz* eta *deutzadas*, bietara idazten du.

“c”: *precioso* (1), *ceruetaco* (8, 12), *ofrecimentue* (13), *ofrecietan* (13), *eselencie* (5) eta *erredenciñoraco* (5). “c” grafiaz idatzitako berba guztiak gaztelaniazko maileguak dira. Horrez gain ohar bedi “c”, “e” eta “i” bokalen aurretik idazten dela. Sekula ez beste hiru bokalekin.

/s/

“s”: *escojidia* (1), *sagraduen* (2), *sortu* (3), *presiosoan* (5), *seigarren* (6), *escojidia* (7), *presiosoagas* (8), *amatasunesco* (9), *eracusten* (10), *Jesusec* (11), *santisimen* (12), *cristinau* (13)...

-n *inposiboa*: Sonante (n, l, r) osteko txistukariak frikariak izaten dira askotan. Berbeta honetako adibide batzuk dira *aransasu* (*arantzazu*), *karselea* (*kartzela*),

²³ Parentesi arteko zenbakiekin adierazten da adibideak duen kokapena jatorrizko testuan. Zenbaki bakoitzak, 1etik 12ra, dagokion Eszelentzia adierazten du. 13.enak ordea, amaierako “Ofrezimentua” adierazten du.

sabis (zabiltz), falsoa (faltsoa)... U. Uriarteren testuan n-dun adibideak baino ez daude:

- *eselencie* (1), *n inplisiboaren* ondoan igurzkaria doa. Gaztelaniar idazten duenean ere berdin idazten du *Libro de las eselencias*. Beraz, ematen du berdin, igurzkari, ahoskatzen duela gaztelaniar eta euskaraz: [š] [*esélensi*]. Pentsa daiteke, berriro ere, idazleak gaztelaniar ikasketa handirik ez duela, zeren izan balu ez zukeen inoiz horrela egingo, excelencia hitzaren “c” /θ/ [hortz-artekoa] ahoskatuko baitzuen.

- *indulujeciec (sic)* (13). Badirudi ‘induljenciec’ idatzi esan nahi zuela. Goiko bi adibideei men eginez hemen ere *n inplisiboaren* ondoan igurzkaria beharko luke. “Arratia inguruko Hiztegia” (AIH, 2011: 365), ostera, afrikatua dakar: *induljentzia*. Ohar bedi irakurlea berba kultu baten aurrean gaudela.

- *erredenciñoraco* (5). *n* ondoan doan txistukaria afrikatua izan ohi da beste eskualde batzuetan. Hemen ordea, igurzkaria da. Hala dakar baita, Arratia inguruko Hiztegiak ²⁴ (AIH, 2011: 257) *erredenzino*. Ahoskapen bera gertatzen da, igurzkaria, *alcansau* (13) eta *consolatallazat* (11) berbetan (AIH 2011: 425 konsolatzaile).

- *donsella* berban ere igurzkaria dakar *n inplisiboaren* ondoan. Eskualdean jasotako formak ordea, (AIH 2011: 225) *dontzeila* edo *dontzaile* dira. Herriko formak ontzat emanez gero, esan daiteke, agian, “s” grafiarekin /c/ edo /č/ (“tz” edo “ts”) adierazi gura izan duela. Hipotesi honen alde leudeke hurrengo adibideak ere: *arguisuen* (7) argitsuen, eta *gorpus* (12) (AIH 2011: 320 : gorputz).

Edozelan ere, zalantzarik gabe esan daiteke txistukariaren arloan duen ziurtasun gabezia nabarmendu egiten dela arean, batez ere maileguetan, “n” inplisiboaren ondoan gertatzen diren gorabeherokin. Gehienetan gaztelaniaren ahoskeratik hurbilen dagoen errealtzazioa gertatzen da.

-Txistukari sabaiaurrekoa /š/

x” grafia ez du erabiltzen behin ere. Gaztelaniako ‘*excelencia*’ edo latineko ‘*excellencia*’, *eselencie* egiten du. Talde kontsonantikoa, “xc” laburturik eta txistukari igurzkaria /š/ erabiliz ematen du. Elizako tradizio kultuan, latinaren tradizioan ohiko erabilera zabala bazuen ere hemen ez da behin ere ageri “x” grafia. Frogaturik gelditzen da beraz, ez duela gaztelaniar testua aurrean ez baitu “x” grafia gaztelaniar hitzean kopiatzen. Formazioa kultua ez duen idazlea dugu, esan

²⁴ A. Larrea eta J. Rekalde 2011: *Arratia inguruko Hiztegia*. “*Geure Berbategie*” *Proiektua*. Beta Ediciones. 2.ed. Bilbo.

bezala, Ulpiano Uriarte. Gaurko idazkeran “*eszelentzi*” izango litzateke, -xc- talde kontsonantikoa -sz- eginik, *eszentriko* edo *eszepitizismo* hitzetan bezala.

Euskarazko txistukari sabaikari frikaria idazteko tradizioan, Añibarrok eta, “ss” erabiltzen zuten.

-Txistukari afrikatu bizkar-albeolarra /c/

Bizkaieran ez dira /c/ “tz” eta /č/ “ts” fonemak bereizten, /c/ ren aldeko neutralizazioa dago. Kontu honetan zalantza handirik ez badago ere, idazleak hiru grafia desberdin darabil fonema bera adierazteko: “tx”, “z”, “s”.

/c/: “tz” *jayotzan* (7), *sortzigarren* (8), *bederatzigaren* (9), *crutzean* (11), *eriotza* (12,13), *altzaue* (12), *bisitza* (13).

“z” *dichosazat* (1), *consolatallazat* (11).

“s” *gorpus* (12)

/č/: “tz” *aberatzaren* (10), *deutzadaz* (13), *deutzadas* (13), *deutzegule* (13).

“s” *arguisuen* (7)

-Txistukari afrikatu sabaiaurrekoa /č/

Txistukari sabaikaria denetan normalizatuena dela esan daiteke, grafia bakarra baitarabil kasu guztietan, gaztelaniaren tradizioa “ch”.

dichosazat (1), *mancha* (3), *dichia* (8), *dicha* (9, 10), *seinchoa* (9), *bacochean* (13).

/j/ *sabaikari ahostuna*

U. Uriartek “j” grafia hau erabiltzen du hitz hasierako silaba librean: *Jangoicoen* (1), *Jangoicoaren* (2,3...), *jagoa* (4), *Jangoicoscoa* (6), *Jangoico* (6), *jaiio* (7), *Jabe* (12), *joatorduen* (11), *Jaun* (13). Bokal artean ostera, “-y-” edo “-i-” idazten du: *jayotzan* (7), *jayo* (7), *jaiio* (7).

/j/ fonema, “j” grafiaz idazten dena era bitara ahoska daiteke [x] belarra edo [j] sabaikaria. Arratian gehien-gehienetan, [j] sabaikari ahostun legez ahoskatzen da: *yóan*, *yárroa*, *yán*...

Hala ere, batzuetan gaztelaniar ahoskeraz ere jaso da: [x] frikari belar ahoskabea, batez ere mailegu berrietan [x] *juraméntue*, *jornála*, *jodídu*... eta Elizaren bidez sarturiko hainbat berbetan *jóse*, *jáune*, *jésus*...

Belarrak: /g/, /j/, /k/

/g/

“g”: Gaztelaniaren idatzizko tradizioari jarraituz, “e” eta “i” ren aurrean “gu” idazkera erabiltzen da: *Erreguiñe* (1,2,3...), *aragui* (1,3,5), *gueiago* (2), *Angueruen* (4,12), *argui* (4), *erregue* (4), *arguitera* (6), *naibagueric* (6), *arguisuen* (7), *eguiascoa* (7),

guelditu (7), *arguiago* (7), *eguinic* (9), *gueitutea* (10), *gueure* (13).

“g” : beste bokalekin: ga: *bigarren* ... go: *jaungoiko*..., gu: *gustis*...

/j/

“j”: Fonema honek berbeta honetan [y] ahoskera du, sabaikaria. Baina hala ere, erlijio arloko berbak gaztelaniazko jota belarrez egiten dira [x]. Agerian dago kristau influentzia kultuak izan duena eragina: *escojidia* (1), *pribilijos* (2), *brijinalen* (3), *alcanjelu* (5), *escojidia* (7), *Virjinal* (8), *Jesusec* (11), *Virjina* (13), *Jesucristogas* (13), *jubilioso* (13), *indulujeciec* (13), *Virjine* (13).

“g”: Belarra adierazteko gaztelaniazko eranskinean *ejercicios* idazten du. Harrigarria da berez gaztelaniazko ortografia zuzenean “j” behar lukeena, ‘*ejercicios*’ oker idaztea. Euskarazko testuan ez du behin ere idazten “g” belarrarentzat.

/k/

Gaurko euskarari “k” idazten den lekuan, gaztelaniaren idatzizko tradizioari jarraituz, oro har, “c” grafia idazten du. Baina ez beti, ondoren “e” edo “i” bokalak datozenean, “qu” idazten du.

“c”: *Jangoicoen*(1), *Jangoicoaren* (2,3,4...), *coroa* (1,2,3...), *escojidia* (1), *santuec* (2), *cabu* (2), *bagaco* (2), *criature* (2,4,12), *aparteco* (3), *pecatu* (3,13), *bagaric* (3,5,6), *artetic* (4,12), *gustietatic* (4), *erredenciñoraco* (5), *alcanjelu* (5), *Jangoicoscoa* (6), *naibagueric* (6), *altuec* (6), *berac* (6), *escojidia* (7), *eguiascoa* (7), *alimentetaco* (8), *Ceruetaco* (9,12), *comparau* (9)...

“qu”: *egusquie* (7), *esquero* (7), *euqui* (8,9,10), *seunquenean* (9), *bedinquetea* (11), *dauquesanac* (13),

/h/ hasperena

h hasperenduna ez dago testuan ez baita ahoskatzen. Badakigu jakin egin izan zena zeren jatorrizko kontsonante honen lekuan badira gaur egun ere aspirazioaren ondorio diren ordezkoko kontsonante batzuk: /g/ esate baterako: *agoa* (10).

Dardarkariak: /r/, /rr/

Bakuna eta anitzaren arteko bereizketa ondo burutzen da kasu guztietan.

aragui (1), *sure* (1), *coroa* (1), *preciosoen* (1), *andra* (1), *artian*...

Erreguiñe (1), *bigarren* (2), *irugarren* (3)...

Hala ere, idazkera arloko hutsa baino ez bada ere, aipatu behar da zenbaki ordinalak sortzeko erabiltzen

den *arren* atzizkia, “r” bakarrez idatzita datorrela kasu bietan: *bederatzigaren*, *amaicagaren* azken hau geroago zuzenduta dago.

Sudurkariak: /m/, /n/

/m/ eta /n/ fonemak arazo barik bereizten dira testuinguru guztietan. Hegoaldeko idazkeraren tradiziozko gaztelaniako idaztaraua bete bete jarraitzen da: “b” edo “p” kontsonanteen aurrean “m” beti. Gaurko idazkera normalizatuan “n” idatzi behar da, jakina. “Eszelentzien Liburuan” ordea, “m” dago beti, esate baterako: *comparau* (8), *nombrau* (11). Añibarro idazlearen lanetan, B. Urgellek aztertu bezala, nabari da kontu honen idazkeraren inguruan izan zen aldaketa.²⁵

Araua harago daroa baina gure idazleak. n-p/b egoera berba desberdinetan (monosilaboetan) gertatzen denean ere araua bete egiten du idazleak: “m” idazten du berba biak loturik emanez. Hau da, lehen hitza “on” monosilaboa denean eta bigarrena “bat” mugatzailea (zenbakitzailea) biak lotuta ematen ditu: *ombategas* (8), *ombat* (9). Ez da gainontzeko kasuetan berdintzatzen: *gustien parcasiañoa* (13), *arean bagaric* (6), *isen basinian* (7)...

7.1.2.1. Kontsonanteen palatalizazioak

Arratiako berbetan, ume hizkeran ez bada, ez dago bustidura adierazkorrik. Adb. *apatxi*, *apatxin*, *neskatxi*, *pitxin*, *txilin*, *txitxilin*, *pitxi*... Mota honetako berbarik ez da testuan. Bai ordea, -i bokalaren inguruan era automatikoan eta esan nahi berezirik gabe, gertatzen diren palatalizazioak:

1) n kontsonantearen palatalizazioa /ñ/

Gaur eguneko idazkeran “in” erabiltzen bada ere testuan, gaztelanian leguez, “ñ” erabiltzen du kasu guztietan. Testuko kasu guzti-guztiak baina, *i*-bokalaren ondoan gertatutako palatalizazioak dira:

Erreguiñe (1,2,3...) *erregin* (2) *ere bai*, *iñor* (2), *baño*(2,7), *erredenciñoraco* (5), *parcasiañoa* (13).

Horregatik, ez dira inoiz “in”ak [ñ] interpretatu behar, [n] baizik. Horren frogara dira, esate baterako, *siniala* (1), *sineala* (4) formak. Gaur egun oraindik, *zinean* esaten da Zeanurin, Bizkaiko leku gehienetan palatalizaturik esaten den *ziñan* formaren ordezk.

2) l kontsonantearen palatalizazioa /ll/

Fonema honen grafia gaur eguneko idazkeran “il” bada ere hegoaldeko tradizioan erruz erabili izan da, gaztelanian bezala, “ll” grafia: *donsella* (7), *consolatzallazat* (11).

-ai, -ei diptongoen ondokoa (Vj-), palatalizatu egiten da beti: i bokala desagertu egiten da hurrengo

²⁵ Ikus Blanca Urgell 2001: Fr. Pedro Antonio Añibarro "Gueroco Guero". Edizio kritikoa. Euskaltzaindia, Bilbo.

kontsonantea sabaikari eginez (<kontsolatzaile, <dontzeila)

Argi esan liteke, testu honetan ez dagoela gaur eguneko hitzun askorengan zabal gertatzen den yeismo fenomenoa [j] legez ahoskatzea berez [II] dena. Bi fonemak ondo bereizita daude ez baitago inolako nahasterik kontu honetan.

/l/-ren palatalizazio hau bizkaieraren ekialdeko azpieuskalkian baino kopuru askoz txikiagoz gertatzen da Arratian: *mutíle, íle, algoasíle, apríle, bagíle, pipíle...* Arratiako berbetaren eremuaren barruan eskualdearen iparralderagoko herrietan zabalagoa da palatalizazioa, askoz ugariagoa da: *bagille, garagarrille, ille, eskillarea, abille...* (Lemoa, Dima, Igorre). U. Uriartek ordea, Zeanuriko semea izanik, Arratia hegoaldekoa, aipatutako bi adibideak baino ez ditu horrela ahoskatzen. Ohar bedi irakurlea bi hitzok gaztelaniazko maileguak direla.

7.1.2.2. Kontsonanteen galerak

-r->Ø: bere > be

Bokal arteko kontsonantearen galera gertatzen da gaur egunean partikula honetan. Bizkaieraz gaur egun, Arratiako berbetan berdin, bi /e/-ren arteko /r/ dardarkari bakuna (biguna), ahostuna, desagertu egiten da. Testuan ostera, mende hasieran, oso ondo kontserbatuta agertzen da kasu guztietan.

eguiascoa isen basinian bere guelditu siniala (7)
estimau bere esin leien sortzigarren eselencie da (8)
sure coroa comparau bere esin lei arren (9)
gueure pecatu gustien parcasiñoa baita bere indulujeciec (13)

Genitiboan gertatzen diren -r- galerak morfologia atalean landuko dira. Hona adibide batzuk:

sagraduen (1) (<*sagraduaren*)
arguien (3) (<*argiaren*)
brijinalen (3) (<*birjinalaren*)
altuen (4) (<*altuaren*)

-g- > Ø

Ohikoak dira ahozko jardunean gaur egun, nahiz eta testuan adibiderik ez egon, a-o arteko -g-> Ø.

-ago atzizkitikoak, barbarako *andíáoa, géau...*
-egon aditzarenak: *jáok/jáuk* (jagok), *dáos/dáus* (dagoz)...

bagaric eta ez barik: Ulpiano Uriarteren 1902 urteko testu honetan froga daiteke gaur egungo hizkeran zabal erabiltzen den *gabe* partikula negatiboaren aurrekaria zein zen. Idazleak kasu guztietan erabiltzen

du: *bage* erroa -ko eta -rik atzizkiei lotuta. Hauxe izan zan erabilera ohikoena Euskal Herriko mendebalde osoan, zeren hortik baitator eremu horretan gaur egun erabiltzen den *barik* forma, bokal arteko kontsonante ahostuna galduta (barik< bagaric; bako<bagako).

cabu bagaco doe pribilijios (2)

pecatu brijinalen mancha bagaric (3)

alcanjelu aragui baten esanagas beste bagaric (5)

min dolore eta naibagueric arean bagaric (6)

7.1.2.3. Kontsonanteen aldaketak

Kontsonante albokariaren asimilazioa gertatzen da hurrengo bi adibideetan:

lelengo (1) < lehenengo *l-n* > *l-l*

alcanjelu (5) < arkangelu *r-k-g-l* > *l-k-g-l*

7.1.2.4. Talde kontsonantikoak

Euskarak talde kontsonantiko konplexuak ahoskatzeko orduan dituen eragozpenak erabat gauditurik daude. Euskaraz tradizionaliki hartu izan diren konponbiderik ez da hartzen²⁶; ez da kontsonanteen artean bokal epentetikorik sartzen, ez da kontsonanterik galtzen, ez da aldaketarik gertatzen. Gaur egun gaztelaniaz egiten diren eran daude. Baita F kontsonantez egindako talde kontsonantikoak ere.

FR: *ofrecietan*

PR: *preciosoen, presiosoan, presiosoagas*

DR: *andra*

GR: *sagraduen, milagros, grasie*

TR: *trinidad, entregau, tronuen*

BR: *nombrau, brijinalen* (baina Virjinal, Virjine)

GL: *gloriosoen*

KR: *criature, crutzean, cristinau*

krutzean

“Krutze” da Arratiako berbetan erabiltzen den hitza (AIH 432or.). Bertako berbak dira *krutzetu, kruzau, Krutzekolanda...*

Etimologiara joz gero latineko **crux-cem** izango genuke. Gaur eguneko hizkeratan *gurutz* erabiltzen da, -kr- talde kontsonantikoak bokal baten epentesiari esker apurtua. Antzinako elizaren tradizioan *crutze* ere erabili izan da. Añibarrok *“besoak crutzeturic errezetea...”* idatzi zuen.

Hala ere *kurúzte eta kurutzéa* dira gaur egun zabal diren formak Arratian. **Kurutze santean egitea** zen *Aita gurea*, hau da, gurutzearen seinalea aurpegian, egitea.

²⁶ Luis Mitxelena: 1985. *Fonética histórica vasca*. 3. edizioa. Seminario Julio de Urquijo eta Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia.

7.2.1.3. Soziatiboa

-gas da Norekin kasua egiteko erabiltzen den atzizkia: -(e)gaz mugagabeen *bategas*, -agas (sing.) eta -akas (pl.). Ez dago -kin atzizkirik.

7.2.1.4. Inesiboa

Hauk dira atzizkiak, singularrez:

-an: bokalez amaitzean: *ardurepean* (9), *betean* (10)

-ean: *crutzean* (11), *bacochean* (13)

-n: Jayotzan (7).

-a itsatsidun sistemadun berbetan (-a>-ea) inesiboan ez da -ean egiten.

pluralrez: -etan: *garbietan* (9).

7.2.1.5. Genitiboa

• Genitibo edutezkoa

Euskal idazkera normalizatuaren tradizioan genitiboaren markak dira -aren singularrez, -(r)en mugagabez eta -en pluralrez. Beti ere bokal arteko -r-ak mantendurik. Ulpiano Uriartek, ostera, ez ditu -r-ak idazten Arratiako berbetan ahoz ez direlako ahoskatzen. Esateko modu-moduan ematen ditu:

<i>jangoicoen</i> (1) baina baita	<i>jangoicoaren</i> (2,3,4,5)
<i>sagraduen</i> (1)	(< <i>sagraduaren</i>)
<i>arguien</i> (3)	(< <i>argiaren</i>)
<i>brijinalen</i> (3)	(< <i>birjinalaren</i>)
<i>altuen</i> (4)	(< <i>altuaren</i>)
<i>espirituen</i> (5)	(< <i>espirituaren</i>)
<i>grasién</i> (5)	(< <i>graziaren</i>)
<i>miragarrien</i> (6)	(< <i>miragarriaren</i>)
<i>santisimen</i> (12)	(< <i>santisimearen</i>)
<i>tronuen</i> (12)	(< <i>tronuaren</i>)

• Genitibo leku-denborakoa

Euskararen gaurko ohiko jokabidea da izen sintagmaren barruan, izenlaguna izenaren aurretik, ezkerretara kokatzea. Ondoren izena. Iraganeko testuetan berriz, maizago aurki daiteke *izena + izenlaguna* ordena. Ahozko jardunean ere oraindik askotan egiten den legez gertatzen da Ulpiano Uriarteren testuko hurrengo adibideetan ere:

Adjektiboak itzultzeko:

en gracia especial / gracie aparteco bategas (3)

divino hijo / seme Jangoicoscoa (6)

verdadera madre / ama eguiascoa (7)

fuisteis el custodio y la guarda feliz / euqui

senduela dicha sorionecoa (9)

Izen berezietan jatorria adierazteko:

los Sumos Pontífices / aita santu erromacoac (13).

SZ: *eselencia*

Gaztelaniako 'excelencia' taldearen "xc" laburturik txistukari igurzkariz /s/ egiten du U. Uriartek. Eszelentzia izan behar lukeena [*ešélénsie*] ahoskatuko litzateke gaur egun eta orduan ere. Zeren Añibarrok (Ciarrusta: 1991) antzeko kasua den "discipulu" *dicipulu* idazten zuen.

7.2. Morfologia

7.2.1. Izen morfologia

Sarreran esandako moduan, ez dira euskal deklinabideko kasu guztiak deskribatuko. Esanguratsuen diren kasuak baino ez ditugu landuko.

7.2.1.1. Absolutua

Fonologia arloan azaldu denez, -a itsatsidun hitzek -ea sistema jarraitzen dute: *samea, ankea, elexea...*

Otoitzetan eta erabiltzen diren formuletan, holako aditzak erabiltzean *deitu, izendatu...*, izen predikatuak mugatuta, artikularekin, joan ohi dira. Añibarrorengan ia beti (M.P. Ziarrusta: 1991). Titulu edo senitartekotasuna adierazten denean ordea beti mugagabeen. Hemen ere horrela gertatzen da:

nombrau senduesala Adanen seme alaba gustien ama eta consolatzaillazat (11).(familia)
coronetan sendusala criature gustien jabe eta errequiñe (12).(tituluak)

Artikulu hurbilari dagokionez, testu honetan ez dago Arratia aldean erabilera arrunta duen singularreko *hau umeau* tankerako formarik. Hurbilaren saileko forma bakarrak pluralekoak dira:

Onec amabi abemarioc (13)
onec abemarioc erresetan dituesan bacochean (13).

Kasu bietan erakuslea *Onec* laguntzen duen izenaren aurretik kokatuta doa. Ez litzateke horrela izan behar euskararen arau orokorrari men eginez gero: "(Hamabi) abemari hauek..." behar luke. Edonola ere, ohartu behar da, sintagmetako izen nagusia ez duela mugatzaile arruntak laguntzen (-ak) pluraleko mugatzaile hurbilak (-ok) baizik.

7.2.1.2. Ergatiboa

Nor eta Nork kasuetako pluraletako marka beti da -ak. Bi kasuen arteko sinkretismoa gertatzen da, ez da bereizketarik egiten. Fonologiaren atalean azaldu denez -ek forma, fonetismoaren ondorioa baino ez da.

7.2.1.6. Ablatiboa

Azpitarragarria da kasu honetan, -etik (sing.) / -tatik (mugb.) / -etatik (pl.), hau da -tik kasu-markaren azken -k desagertu izatea adibide batzuetan. Ahozko erabileran **ti** (sing.) / **-atati, -etati** (pl.): *etzeti, etzeetati; Frantzie parteti...* zein **-tik**, bardin-bardin erabiltzen dituzte hiztunek, bata zein bestea.

Hemen ere bietako adibideak ditugu.

-aurreti (4) "aurreti milagros iregarrie isen arren"
-artetic (4) ti: "erregue artetic"; "-c" zirriborratuta dago dokumentu originalean.

-gustietatic (4) "criature gustietatic umildiena".

Ablatibo zaharra **-rik** ere erabiltzen den arren eskualdeko hizkerako zenbait testuingurutan testu honetan ez da adibide bat bera ere.

-rean atzizki arkaikoa "arean" berban baino ez dago.

7.2.1.7. Prolatiboa

-zat dugu prolatibo kasuaren marka. Beti mugagabez erabiltzen da. Ikus ditzagun testuko kasu biak:

que fuiste elegida entre todas las mujeres para madre felicísima del hijo de Dios. / isen siniala escojidia andra gustien artian Jangoicoen semena (sic) ama gustis dichosazat (1).

os nombró amorosa madre y consuelo de todos los hijos de Adán. / nombrau senduesala Adanen seme alaba gustien ama eta consolatzallazat. (11)

Lehenengo kasuan gaurko gaztelaniaz "fuiste elegida como" erabiliko genuke eta badirudi horixe izan duela gure itzultzaileak buruan: *como* eta ez *para*. Eta bigarrenean ere buruan antzeko zerbaite izan zuela ematen du zeren berez, ez baitu zertan erabili **-zat** atzizkia, NOR kasuan joan zitekeen: *izendatu zintuen Adanen seme alaba gustien ama eta kontsolatzaile*.

7.2.1.8. Instrumentala

Lau dira kasu honetan dauden izenak:

gustis (1...) Superlatiboak egiteko behin eta berriz erabiltzen duen baliabidea. (Aurrerago sakonduko da puntu honetan)

pribilijos (2), birtutes (2,5), milagros (3,4). Hirurek ZEREZ galderari erantzuten diote.

7.2.1.9. Motibatiboa

Oso bitxia da gaztelaniaz *con* preposizioz osaturiko sintagma norengatik kasuaren bidez itzuli egin izana.

comunicándoos con su amor sus arcanos celestiales. / bere amodioagaitic eracusten eutesala bere zeruetaco misterio escutuac.(10)

Ez da gauza bera 'bere amodioarekin edo bere amodiaren bidez' (= con, por medio de) edo 'bere amodioagatik' (= por, a causa de).

Berbeta honetako ezaugarria denez, motibatiboaren kasu marka **-gaitik** (ez **-gatic**), absolutuaren gainean eraikitzen da, ez genitiboarenean: amodioagatik, ez amodioarengatik.

7.2.1.10. Generoa

Ukopen egoeran dauden hizkuntzen artean sarri hizkuntz mailako interferentziak gertatzen dira. Berregituraketa berriak egiten direla esan gura da. Ez da hizkuntza nagusitik elementu solteak, berbak kasurako, ekartzea baizik eta gaztelaniako hizkuntza-sistemako elementu batzuk, generoa kasu, kopiatzea euskarari sartuz. Berez euskarari ez dago generorik, baina bizkaieran, eta Arratian berdin, o/a maskulino eta femenino bereizketa egiten da hainbat adjektibotan: *kokolo / kokola, potoloa / potolea; altua / altea, lelo / lelea, drogoso / drogosea, memeloa / mamalea...*

Baita atzizkietan ere:

-eru / -era lanbideetarako atzizkia: pastelerua / pastelerea, atzizki handitzailea -to / -tona: morroskoa / morroskotonea, bajuto / bajutonea oso/ -osa; temoso / temosea, famoso / famoseta, ganoso / ganosea, itxuroso / itxurosea, kapritxoso / kapritxosea, drogoso / drogosea, garboso / garbosea, grazioso / graziosea...

Baina kontu hau ez da gaurkoa, zaharra baizik. Añibarroengan (B: Urgell 2001) femeninoa erruz ageri da. Batez ere Elizaren tradizioetik etorritako lexikoan: Eliza bera beti hartu da femeninotzat eta ondorioz, dagozkion adjektiboak *santa, santísima* bezalakoak femeninoak dira (*-ísima* atzizkia). Erabilera defektiboa du, hau da, jatorrizko hizkuntzan femeninoa diren maileguei bakarrik -edo batez ere- egokitzen zaie. Baina Añibarro idazlearen obran ikus daitekeenez, hizkuntza normalizatu ahala, femeninoaren erabilera gutxitu egiten da.

Ulpiano Uriarteren testuan hauek dira aurki genitzakeen genero bereizketak:

Femeninoa: *alta (5)*
Maskulinoa: *altue (6,8)*
sagrada (5)
(sagrada)²⁷
santa (6)
(santu)

²⁷ Parentesi artean doazenak ez daude testuan, ahozko erabileratik jasoak dira.

(*presiosea*)
presiosea (5),
presiosoagas (8)
escogidia (6)
(*eskojidua*)
bedinquetea (11)
(*bedinketua*)
poderosea (12)
(*poderosoa*)

Gaztelaniazko legeari jarraituz, berez euskararen araua ez denari jarraiki, -a bokalez amaitzen dira femeninoak eta o-z maskulinoak.

Genero bereizketa horren arabera daude hurrengo hitzak ere:

- femeninoa: *alta, sagrada, santa, presiosa, eskojida, bedinketa, poderosa*.
- maskulinoa: *presioso, altu...* -u amaiera dugu maskulinoa egiteko, -o amaieraren parean.

Hala ere esan daiteke, gaztelaniazko kontua denez, euskaraz guztiz sustraitu gabe egon dela generoaren bereizketa. Hori pentsatzeko bidea ematen dute Uriarteren testuan araua apurtzen duten bi adibide argi:

dicha altue (10). “*dicha*” izena -a bokalezko amaiera du eta femeninoa da gaztelaniaz. Ondorioz, “*alta*” edo hobeto “*altea*” zegokion, ez “*altue*”.

coroa presiosoan (5), *coroa gloriosoan* (12).
Gaztelaniaz, *corona*, femeninoa izanik, hemen ere “*presiosa*” edo “*gloriosa*” itxaron zitekeen.

Berba biak gaztelaniaz femeninoak dira, eta -a bokala dute amaieran: *ditxa*, gaztelaniaz ‘*dicha*’/ *koroa*, gazt. ‘*corona*’. Bi izenok laguntzen dituzten adjektiboek ere femeninoa izan beharko zuket. Zergatik huts egiten du arauak hemen? “*dicha*” eta “*coroa*” gaztelaniaz femeninoak bai, baina sexu gabeko izenak dira. Horregatik ez du femeninoa egin, maskulinoa edo neutroa darabil (-o/-u). Testuko gainontzeko generodun berbak Ama Birjinari edo Jaungoikoari dagozkie. Hau da, sexua dute.

7.2.1.11. Superlatiboak eta muturreko konparaketak

U. Uriarteren *Eszelentziak* liburuxka otoitz-liburutxo da. Eta hamabi eszelentzietako bakoitzak Ama Birjinaren koroaren ezaugarrien gorapamena egiten du. Ondorioz, adjektibo positiboak josita dagoz, gehienak era superlatiboan.

-ísimo/a = guztiz
preciosísima corona / gustis presiosoan (1)
madre felicísima / ama gustis dichosazat (1)
beatísima Trinidad / trinidad gustis santuec (2)
santísima reina / gustis santa (6)
supremo / Jangoico gustis altuec (6)
altísimo / gustis altuen (8)

bular gustis garbietan (8)
riquísima corona / gustis aberatzaren (10)
piadosa reina / Erreguiñe gustis bigun (10)
altísima dicha / dicha gustis altue (10)
benditísima reina / Erreguiñe gustis bedinquetea (11)
gloriosísima / gustis gloriosoan (12)
virgen santísima / Virjina gustis santuen (13)
preciosísimo hijo / seme gustis presioso (13)

-ísima = -isima

beatísima Trinidad / trinidad santisimen (12)

-ísima = ø

amantísima madre / ama (hutsean) (10)

-in- + adj. + -ble = ezin leien

incomparable corona / comparau bere esin lei arren (9)

incomparable dicha / bardindu esin leien dichia (8)

inestimable / estimau bere esin leien (8)

-beste batzuk

reina de reinas / Erreguiñe gustien Erreguin (2)

la más humilde de las criaturas todas / criature gustietatic umildiena (4)

infinitos dones / cabu bagaco doe (2)

... *es que fuiste adornada por la beatísima Trinidad con infinitos dones, privilegios y virtudes, de que no hay ejemplar en criatura alguna / edertu sendusela cabu bagaco doe pribilijos eta birtutes beste criature iñor*²⁸
baño gueiago. (2)

7.2.2. Aditz morfologia

Bizkaiera euskalkiaren aditzaren formak dira idazleak darabiltzanak, oro har, Arratiako berbetan gaur egun erabiltzen diren adizkiak. Forma arautuetatik urruntzen diren aditzak, gehien bat, bokalen harmonizazioak eragindako aldaketengatik sortuak dira. Adizki barruan gertatzen diren bokalen asimilazioak azken baten: *dauque, sendusen, deite, seuquen, deutze...* Ez dago beste aldaketarik, ez eta ahozko jardueran ohiko diren inolako uzkurdurarik ere (*bozu, beogu, gurot...*). Ulpiano Uriarte, behar bada, ahozko tradizio kultu-erlijioso sendo baten jabea dateke: Elizaren bidez, belarriz ikasitako hizkuntza kultuaren eredia ondo ikasia izango zuen.

Azpimarratzekoa da baita ere, gaur eguneko jardueran aruntetik galdutak jo litekeen nor-nork iragana hemen era egoki-egokian darabilela. Hutsik egiten barik. Nor-nork iragana sailekoetan, gaur egun

²⁸ Deigarria da gradu desberdineko konparaketak egiteko modu hau. Honela litzateke sintaxi eta esanahi logikoari jarraituta: “edozein kria bano gehiago” itzuliko genuke “*criatura alguna*”. Ulpiano Uriartek ordea, *beste criature iñor baño gueiago* egiten du. Ordenamendu logikoaren arabera ezin da izenaren ondoan inor izenordaina jarri. Zergatik darabil baina, inor, ezezkoetan eta galderetan erabiltzen den izenordaina, edozein (*alguna*) logikoaren orde? Auskalo.

haren ordeaz nor-nori-nork erabiltzen da; hau da, *zinduzan* barik *eutsun* esaten da.

Aditz partizipioetan -au amaiera darabil kasu guztietan, ahozkoan erabiltzen den eran: ez du -ADU egiten: *alcansau, estimau, comparau, entregau, nombrau...* Bokal arteko ahostuna galdurik, -au sistematizaturik dago jada. Eta ondorioz -TZEN ordeaz -TAN egiten da: *coronetan, ofrecietan, erresetan...* -TU/DU amaieradunak: *gueitu, erregutu, edertu, sortu, guelditu, lagundu..*

Gaztelaniazko otoitzetako hainbat aditz *Vos* erako tratamenduan daude. Ama Birjina eta Jaungoikoarenganako harremanari *Vos* dagokio. *Vos*-kako tratamendua Zuka da euskarazko itzulpenean. Baina zenbait kasutan, itzultzaileak testu originalaren pertsona erreferentziak aldatzeko lizentzia hartzen du: kasu bitan pluraleko lehen pertsonakoa singularreko egiten ditu:

ofrecemos / ofrecietan deutzadas (12)
á quien pedimos y suplicamos / seineri erregututen deutzadas (12)

Hurrengo honetan osteraz, hark zuri (a vos) egin beharrean hark hari egiten du:

comunicándoos con su amor sus arcanos celestiales / eracusten eutzesala bere zeruetaco misterio escutuac. (10)

Pluralgileak: Bizkaierazko aditz sistema osoa plural analogikoan oinarrituta dago. Hau da, plurala egiteko -it- sistema zaharra erabili beharrean, -z gehitzea. Eszelentzien Liburuko adibideak dira hurrengoak:

eutzesala (10), deutzadas (13), dauquesanac (13)

Ahozko berbetan gertatzen diren legez, askotan plural pleonastikoa gertatzen da, hau da -it-dunak pluralak direla ahaztuta pluraleko beste atzizki bat ezartzen zaio, soberan badago ere. Oso zabala da erabilera hau eskualde hauetan.

dituesan (13)

7.2.2.1. Aditzen sailkapena

- **NOR: IZAN**

[nor (hura) Indikatibo Oraina]
da: *da (1,2...)*

[nor (haiek) Indikatibo Oraina]
dira: *bere meresimentuac eta eselenciec diriala mediante alcansau deigule (13)*

[nor (zu) Indikatibo Iragana]
zina: *isen siniala escojidia andra gustien artian (1)*
sortu siniala milagros (4)

guelditu siniala egusquie bera baño garbiago eta arguiago (7)
isen siniala altzaue ceruetaco angueruen artetic gorago (12)

[nor (hura) Indikatibo Iragana]
zan: *sortu sala (5)*

[nor (hura) Subjuntibo Oraina]
deite: *erregututen deutzadas isen deite gueure bitarteco (13)*

[nor (hura) Ahalezko Hipotetikoak]
lei: *estimau bere esin leien sortzigarren eselencie da (8)*
euqui senduela esegas bardindu esin leien dichia (8)
sure coroa comparau bere esin leiarren bederatzigaren eselencie da (9).

- **NOR-NORK: EDUN**

[nork (hark) - nor (haiek) Indikatibo Oraina]
dituesan: *onec abemarioc erresetan dituesan bacochean emonic dauquesanac (13)*

[nork (hark) - nor (zu) Indikatibo Iragana]
sendusela: *trinidad gustis santuac edertu sendusela (2)*
senduesala: *nombrau senduesala Adanen seme alaba gustien ama (11)*
sendusala: *trinidad santisimen tronuen alboan coronetan sendusala criature gustien jabe eta erreguñe (12).*

[nork (zuk) - nor (hura) Indikatibo Iragana]
senduela: *emon senduela arguitera seure seme Jangoicoscoa (6)*
euqui senduela esegas bardindu esin leien dichia (8)
euqui senduela dicha sorionecoa Jangoicoaren semea seinchoa (9)
[nor (hura) Subjuntibo Oraina]
deite: *isen deite gueure bitarteco (13)*

[nork (guk) - nor (hura) Subjuntibo Oraina]
daigun (diezagun):
gueure Jaun Jesucristogas emon daigun jubilioso eta gueure pecatu gustien parcasñoa baita bere induljeciec deigule: alcansau deigule bisitza ombategas eriotza ombat (13).

- **NOR-NORI-NORK SAILA**

[nork (nik) - nori (hari) - nor (haiek) Indikatibo Oraina]
deutzadas:
ofrecietan deutzadas maria Virjina gustis santuen coroaren amabi eselencie (13)

[nork (guk) - nori (hari) - nor (hura) Indikatibo Oraina] deutzegule:

Virjine santa beroni erregututen deutzegule (13)

[nork (hark) - nori (hari ?) - nor (haiek) Indikatibo Iragana]

eutzesala: *eracusten eutzesala bere zeruetaco misterio escutuac (10)*.

- **EDUKI**

[nork (hark) - nor (haiek) Indikatibo Oraina]

dauquesanac:

onec abemarioc erresetan dituesan bacochean emonic dauquesanac (13)

[nork (zuk) - nor (hura) Indikatibo Iragana]

seunquenean:

bere amatasunesco ardupepean bacarric seunquenean (9).

7.3. Sintaxia

Perpaua ideia bat adierazteko unitatea den aldetik, testu honetako hamabi otoitzetako bakoitzak perpaua bat osatzen du: aditz nagusi bat, eta haren inguruan beste sintagma guztiak. Aita Villasantek argiro azaldu bezala, otoitzetan, aditz nagusiaren kokapena ez da perpauaren atzenezan Seber Altuberen lege zorrotzek agintzen zuten eran. Aurreratuta ageri ohi da. Eta halaxe da hamabi eszelentziotan ere. Galdegaiaren legea ez da betetzen beraz, fokua atzeratuta dator beti eta.

Otoitz guztiek egitura bera dute:

-Bokatiboa + zure koroaren -zenbaki- eszelentzia + da + gainerako sintagma

Erreguiñe eta Jangoicoaren ama... sure coroa araguien ... irugarren eselencie da...

Ofrezimentua deitzen den otoitz luzeak ere hasiera beretsua du:

Onec amabi abemarioc ofrecietan deutzadaz...(13).

7.3.1. Koordinatuak

Eta: Hiru formatan agertzen da: eta, ta da. Ikus fonologia atalean azaldutakoa.

7.3.2. Izen Sintagmaren funtziodun perpauak:

7.3.2.1. Atributua

Zalantza barik, -ela atzizkiz osatutako mendekoak dira ugarien testuan. Otoitzaren formula izanik: 1.2.3....eszelentzia da.... ondoren datozen mendeko perpaua gehienak atributuaren funtzioa betetzen duten izen sintagma dira. Otoitz guztietan erabiltzen da egitura bera:

La primera excelencia [...] es que fuiste elegida / lelengo eselencie da, isen siniala escojidia.

7.3.3. Mendekoak

7.3.3.1. Objektu zuzena, kompletiboak

Perpaua kompletiboak egiteko erabili ohi den atzizkia -LA da hemen ere erabiliena.

eselenciec diriala mediante alcansau deigule bisitza ombategas eriotza ombat. (13).

Gaztelaniazkoan, *suplicamos para que alcancemos una buena vida* helburuzkoaren itxura du.

Bada kasu bat, kompletiboa mendeko aditza -LA atzizki barik:

seineri erregututen deutzadas isen deite gueure bitarteco (13)

Gaztelaniazkoan *Se sirva de rogar por nosotros* dio (para nosotros ulertuko zuen Uriartek: *isen deite gueure bitarteco*).

7.3.3.2. Mendeko perpaua erlatiboak

Erlatibozko perpauak, euskarazko ahozko moldean izen sintagmaren ezkerretara kokatzen dira, [(mendeko perpaua + aditza -N) + izena] Adb. *Aurrean dagoen txakurra Teo da*. Idatzizko tradizioan ordea, betidanik erabili izan da beste jokamolde bat. Hizkuntza erromanikoetan legez, izenaren eskuinean jarrita eta izenordainez lagundurik: [izena + (izenordain erlatiboa + mendeko perpaua + aditza -N/ bait-)] Adb. *Aurreko txakurra zein Teo deitzen den / Teo deitzen baita lo dago*.

Molde bietako adibide bana dugu U. Uriarteren testuan:

1. *aita santu erromacoac ... emonic dauquesanac (13)*.

2. *Onec amabi abemarioc ofrecietan deutzadas (...) coroare amabi eselencie seiineri erregututen deutzadas isen deite gueure bitarteco*.

Bigarren molde hau Bizkaiko idatzizko tradizioan ez da oso erabilia izan, batez ere garbizaleek baztertu egin zutelako. Alabaina, Iparraldeko tradizioan, hasi Leizarraga eta gaur egunera arte, oso emankorra izan den konponbide sintaktikoa izan da batez ere perpaua luzeetarako. Askoz egokiago eta ulergarriago gertatzen dira izenaren ondoko erlatiboak zeren -N erlatiboak, izen ardatzaren ezkerrean txertatzen den aldetik, ez baitu onartzen bere baitan osagarri ugari biltzerik²⁹. L. Villasantek³⁰. ondo baino hobeto azaldu zuen zein

²⁹ "Sareko euskal gramatika"-tik jasoa: Zein/non erlatiboak Karlos Cid Abasolo <http://www.ehu.es/seg/morf/5/20/4/3>

³⁰ Luis Villasante, *Sintaxis de la oración compuesta*. Editorial franciscana. Arantzazu, Oñate, 88-89 or.

mesedegarria gerta dakiokkeen euskarari aurreiritzi hori gainditzea: “*Sobre todo, en traducciones se siente la necesidad de recurrir a zein empleado como relativo, y sabido es que ninguna lengua que aspira a ser vehículo de cultura puede prescindir de las traducciones (...)*”

Eredu honetako adibidea dugu U. Uriarteren hurrengo hau ere. Hauetan izen ardatza aurrekaria da, hau da, izenordain (edo adberbio) erlatiboa baino aurrerago ageri da, hau da, izenaren eskuinera dator erlatiboa. Erlatibo funtzioa hartzen duen galdetzailea izenordaina edo adberbioa izan daiteke. Izenordaina: zein; adberbioa: non, nora, nondik, noiz... Lehen kasu honetako pluralekoa dugu eskuartereko kasua:

Onec amabi abemarioc ofrecietan deutzadas maria Virjina gustis santuen coroaren amabi eselenciei seineri erregututen deutzadas isen deite gueure bitarteco (13).

Garbizaleek galdetzaileen bidezko perpausen aurkako amorrua izan bazuten ere Bizkaiko idazle zaharren artean izan da bai, erlatibo mota honen erabilerarako joera, baina beti ere galdetzailearen mendeko aditzari -N erantsiz. Horrela erabili izan da nagusiki, baita Arratiakoan artean ere.

Añibarro: Lau evangelioak...

...aramen egiazco israeldar, ceinegan engañuric eztagoan (38).

Añibarro: Guero guero:

...cein dan zure arimea.

...cein baita çure arima.

...cein dan arimeco gaissotasuna.

...cein baita arimaco eritasuna.

J.A. Mogel: Peru Abarka

Ondo etorkon izena, zeñean espliketan zirean...

Edo Asturiaskoak, zeintzuen okelea dan ispi luzekoa.

Ulpiano Uriartek zeineri jartzen du, nahiz eta aurrekaria eszelentziak izan, plurala. Mogelen jokabideari jarraituta zeintzuei edo antzekoren bat behar zuen.

Ez du oster, -N atzizkirik erabiltzen, mendeko aditza huts-hutsean doa: *seineri erregututen deutzadas*. Jokabide bera ikus daiteke inoiz baita Añibarrorangan ere (Ciarrusta, 1991: 134):

...antz-irudituten da azcarriaz, cein andra batec artu, ta oratuten dau.

...hipocirtac leguez ceintzuec bestetuten diue euren aurpeguiaç.

7.3.3.3. Helburuzkoak

Subjuntiboa erabilia egiten dira helburuzko mendekoak euskaraz. Baina hauen parean bada beste aldaki bat zaharra dena eta gaur egun inguru honetan jada erabiltzen ez dena: *subjuntiboa* + -TZAT atzizkia. Añibarro (P.A. Añibarro, *Guero guero...*) maiz

erabiltzen zuen: *confesatu eguientzat, bete zedintzat...* Zabalak aztertu zuenez (in B. Urgell: 2001) Lapurdi eta Bizkaiko erdialdean erabiltzen zen baliabide hau. Zehatzago esanda Arratian, Txorierrin eta Orozkon. A. Larreak eta J. Rekaldek AIHn erakutsi zuten Arratia aldeko sermolarien artean ere bazen tradizio hori:

Pedro Agirregoikoa: “... gozadu daguigunzat eternidade bateco vere aurpeguico presencia ederra, au da Ceruco gloria”; “Arimetan alcanzetan deustezuela auxilio, eta gracia asco, artudaienzat ceruco videan...”. (Sermoiak)

Sebastian Bizkarguenaga: “... ezaututeco zeuroen arriesgua, verac lagunduco deuzue urten daizuenzat zeuroen peligruric”; “... icusi daguienzat infernuco penac euren considerañoagaz, eta zeruco tesoroac, modu onetan Jaungoicoen amudioagaitic eroan daiezanzat euren trabaju gustiec paciencia andiegaz”. (Sermoiak)

Domingo Mendibil: “Amaitu daigunzat vizitza au ceure, eta Jesus zeure seme aren gracijan, onen vitartez alcanzetaco vetico glorija”. (Sermoiak)

7.3.3.4. Kontzesiboak

Mendeko perpaus kontzesiboak egiteko dauden bi modu ezagunenak darabiltza idazleak testuan:

1. *ba* + bere:

ama eguiascoa isen basinian bere guelditu siniala egusquie bera baño garbiago eta arguiago donsella (7).

2. arren:

Partikula hau laguntzen duen aditzaren talde fonikoaren barruan ahoskatu dagoenez, berari itsatsita idazten du.

sure coroa comparau bere esin leiarren (9).

7.3.3.5. Denborazkoak

Orduan berbagaz, *partizipioa* + *ordu* beste ezer barik, egiten dira Arratian eta Bizkaiko eremu handi batean mendeko denborazko perpaus zenbait. Bizi-bizi dagoen baliabide sintaktikoa da gaur egun ere. -t-tartekatuta ere erabiltzen da eta idatzi ere horrela idazteko tradizioa dago Arratiako idazleen artean:

... *il eta aita eternoagana joatorduen nombrau senduesala Adanen seme alaba gustien ama eta consolatzallazat*. (Ulpiano Uriarte, 11)

“*Ara joatorduko esan eutsan Pepak...*”. (L. Ayesta)

“... *ahuntzak antzutu orduan...*”. (F. Etxebarria)

“*Ni ezaupidera allegautorduko...*”. (Diman jasoa)

“*Hiltorduko ikusi gure dot...*”. (Diman jasoa)

-(a)n bakotxean:

abemarioc erresetan dituesan bacochean emonic dauquesanac Virjine santa beroni erregututen deutzegule (13). Gaztelaniaz, *cada vez que las rezaren* izanik, hitzez hitzezko itzulpena da.

7.3.3.6. Moduzkoak

-LA atzizkiz osaturik:

abemarioc erresetan dituesan bacochean ... Virjine santa beroni erregututen deutzegule (13).

Berez gaztelaniazko testuan erlatibozko perpausa da: *las rezaren á honra y gloria de la santísima virgen María a quienes pedimos y suplicamos por sus méritos y excelencias...*

Gaztelaniazko gerundioen itzulpena:

Otoitzen artean badira bi gerundio gaztelaniazko originalean, *comunicándoos (10)* eta *coronándoos (12)*, moduzko esanahia dute eta U. Uriartek -LA atzizkiz itzuli ditu.

os llamase á boca llena su amantísima madre, comunicándoos con su amor sus arcanos celestiales / suri agoa betean ama gueitutea bere amodioagaitic eracusten eutzesala bere zeruetaco misterio escutuac.

arima trinidad santisimen tronuen alboan coronetan sendusala criature gustien jabe eta erreguiñe / junto al trono de la beatísima Trinidad, coronándoos por reina y señora de todo lo criado.

7.4. Lexikoa

Formazio kultu handirik ez duen itzultzaile batek gaztelaniatik egindako itzulpen bat da Eszelentzien Liburua. Horregatik ez du, Bizkaiko literaturaren historian gertatu ez bezala, inolako konplexurik espainolezko lexikoa erabiltzeko orduan. Testuko lexikoan bada testu originaleko kultismoren bat, egia da. Baina jatorri kultua duten hitzen ondoan herri mailan erabiltzen diren gaztelaniazko berbak erruz daude. Orain arte aztertu bezala barreatuta dagoz testuan zehar Arratiako herri berbetaren ezaugarriak maila guztietan, eta jakina baita lexikoan ere.

Itzultzaile beharrak sortzen dizkion oztupoak gaintzeko zenbaitetan, gaztelania darabil. Baina beste batzuetan, hitz bat berba batez itzuli ordeztu, bere lekuan esaldi oso bat erabiltzen du, “*estimau bere esin leien sortzigarren eselencie da ...*”(8) esaldiaren bidez, “*inestimable*” (8) berba itzultzen du, esate baterako.

7.4.1. Jatorri kultua

Testuko berba kultuak jatorri erlijiosoa dute. Batzuetan erlijio katolikoaren tradizioan arruntak diren arren herri formatatik oso urrun daudenez, orduko hiztunentzat esanahi argi gabeak dira. Adb. *Virtutes (5)*, *Virjinal (8)*, *trinidad (2)*, *amen (13)*, *pribilijos (2)*.

mediante:

pedimos y suplicamos por sus méritos y excelencias sea nuestra intercesora, para que alcancemos buena vida y buena muerte / Virjine santa beroni erregututen

deutzegule bere meresimentuec eta eselenciec diriala mediante alcansau deigule bisitza ombategas eriotza ombat. (13)

Berez moduzko adberbioa da *mediante*; *bidez*, *bitartez* esanahia du. Adibidez “Honen bidez lortu da” (gazt: Se ha logrado mediante ésto). Baina erabilera horrez gain, gaztelaniaz bada Jaungoiko eta Ama Birjinarekin erlazioatutako beste erabilera bat: absolutu kasuan erabili eta balio adjetibala duen esaera da, “Dios mediante”ren parekoa. “Si Dios media” esan nahi du, “Jaungoikoaren bidez”. Kasu honetan “koroaren eszelentziak direla bitarteko”, “bitartekari direla”, esan nahi du.

7.4.2. Herri jatorria

Abadea ez den herri mailako idazlea dugu Ulpiano Uriarte, formazio kultu handirik ez duena. Alde honetatik, beraz, logikoa da Arratiako ahozko berbetan ezagunak diren berbak ere barra-barra agertzea, nahiz eta kultuak ez izan. Horregatik, gaztelaniazko berbak herriak darabiltzan moduan, era naturalean, sartzen ditu. Garaikideak zituen hizkuntza arloko ideia garbizaleek ez dute eragin handirik izan U. Uriarteren idazkeran.

donsella gelditu

*...ama eguiascoa isen basinian bere guelditu siniala egusquie bera baño garbiago eta arguiago **donsella** semea jaio baño lenago jayotzan eta jayo esquero (7).*

...es que aunque fuiste verdadera madre, quedaste más pura y tersa que el sol, virgen antes del parto, en el parto y después del parto (7).

agoa betean

*...euqui senduela dicha gustis altue Jangoicoaren semeac suri **agoa betean** ama gueitutea (10).*

...que el hijo de Dios eterno os llamase á boca llena su amantísima madre (10).

entregau

*Jangoicoaren semea seinchoa eguinic sure conture **entregau** eta bere amatasunesco ardurepean bacarric seunquenean (9).*

...la guarda feliz del hijo de Dios hecho niño y entregado todo El a vuestro maternal y único cuidado (9).

alimentetaco

Jangoico gustis altuen semea alimentetaco sure bular gustis garbietan seugas (8).

...tuvisteis la incomparable dicha de alimentar con vuestra virginal y preciosísima leche (8).

escogidia

Erreguiñe escogidia eta Jangoicoaren ama sure coroa arguisuen (sic) saspigarren eselencie da (7).

La sétima excelencia de vuestra refulgente corona, escogida reina y madre de Dios (7).

aragui

Berba honen erabilera berezia da oso. Horregatik esanahia argitu beharra dago lehenengo eta behin:

7.4.3. OHO

1. ‘Carne, parte muscular del cuerpo de los animales’. *Gatz bago ustelduten da aragia, nekegarri bago galtzen da bertutea*. Añibarro, LoraS 165.

Bildur andijagua sartu yakon bere aragi ta azurren barru-barrurano. Kirikiño, Abarrak I 47.

Pluralez: *Nork egian kolpeori / zure aragi ederretan?* Lazarraga 1197r.

Ostia zatituteak esan nai dau zelan ebagi ta birrindu eutseezan Yesukristori aragi guztiak. Añibarro EL2 123.

Hitz elkarketetako lehen elementu:

Eranziten eutsuezala Soñeko guztiak; ta eureekaz batera, eurai oraturik egozan aragi-atal zatituak. Añibarro EL1 201.

2. ‘Carne para el consumo, para comer. En gran parte de Bizcaya no llaman así a la de comer, sino okela, a la común; [...]. En algunas partes de V, como Plencia, Barrika, llaman aragi a la carne de comer’. En uso general salvo en vizcaíno, donde mayoritariamente se documenta okela. Aún así, emplean haragi J.A. Moguel, Astarloa, Zavala (Fab RIEV 1909, 38), Arrese Beitia, Iturzaeta (Azald 119), D. Agirre (Kr 45) y KikV; tbn. lo encontramos en el alavés Lazarraga’.

Ene aginok ezin jan leie / aragi errebagea. Lazarraga 1196.

Nastau al daitez aragia ta arraña barau-egunetan? KikV 77.

3. Carne, parte corporal o material del hombre en oposición al espíritu. Sensualidad.

Neure aragi gaxtoaganik / izan ninzan ni tentadua. Lazarraga 1193v.

Ezi aragi gaistoa. Añibarro EL1 18.

AIH: *Mugatu singularrez: [aragíe]*

Bizirik dagozala, pertsonaren eta animaliaen gorputzaren mamina.

“Aul ta argal dogu gure aragia, arako goizean erne ta arratsaldean igertuten dan oloa baizen aul”. (J. G. Ibargutxi)

haragi gorri arági gorrié; Zauri baten azala - oraindik zoldu barik dagoenean- kendu ezkerro agertzen dana.

haragikeria; Sexu bidezko harremanak, narrua jo. Konnotazio negatiboak daukaz.

“Egia esan, gorputza erantzi ezkerro, aragikeri biderik ez leukake. Baña beste oben batzuk egin al izango leukiez, ta aragikeria baño be astunagoak”. (J. G. Ibargutxi)

Orotariko Hiztegia eta Arratiakoa ikuskatuta, argi dago pare bat gauza:

1- Esanahi aldetik, lizunkeriarekin erlaziona daitekeen esanahia ez datorrela bat testuko hiru adibideetako testuinguruarekin. Beraz, argi dago, kasu hauetan guztietan gizakion mami biziari, giharrari buruz ari dela.

Erreguiñe aragui eta Jangoicoen ama (1)

...coroa araguien irugarren eselencie... (3)

...alcangelu aragui baten esanagas... (5)

2- Harrigarria dena da hiru kasuetan aragui berba izenari laguntzen doala, izenondoaren lekuan. Izenondoa dela ondorioz. *Erreguiñe aragui, coroa araguien eta alcangelu aragui*. Baina zelan liteke *haragi* adjektiboaren adibiderik ez bada lehenago sekula jaso euskal literatura idatzian? Behar bada kontu honen azalpena itzultzeko duen zailtasunarekin izan lezake zerikusi.

- Bi kasuetan aragui berba “imperial” itzultzeko erabiltzen du

...imperial reina y madre de Dios / Erreguiñe aragui eta Jangoicoen ama (1)

...vuestra imperial corona / sure coroa araguien (3)

Beste behin berriz, aragui berba “elevado” hitzaren pare dago.

...a la voz y anuncio de un elevado arcángel. / alcanjelu aragui baten esanagas beste bagaric (5)

“Haragi egin” esanahia izan zezakeela pentsa zitekeen, gaztelaniaz “encarnado / “encarnada”. ‘Haragi egin, gizaki haragiduna bihurtu’ esanahia izan balu partizipioa beharko luke: haragitu edo antzekoren bat, baina oster, *aragui* besterik ez du idatzi. Ohar bedi irakurlea hala dakarrela San Jose de Calasanzen otoitzak: “se encarnó”. Ez da horrelakorik ordea Delmasen edizioan.

7.4.4. Beste konponbide batzuk

Idazleak berba zail batzuk itzultzeko orduan, zenbait konponbide desberdin hartu behar izan ditu. Hona hemen:

beato: *beatísima Trinidad / trinidad gustis santuec (2)*.

estirpe: *aunque naciste de estirpe / erregue artetic jagoa (sic) isen arren (4)*.

linaje: *para el rescate del linage (sic) humano / munduen erredenciñoraco (5)*.

virginal leche: *con vuestra virginal y preciosísima leche, / sure bular gustis garbietan seugas Virjinal presiosoagas (8)*.


piadoso -sa: *piadosa - bigun (10)*.


soberano -na: *soberana corona / coroa errealaren (11)*.

Sumo Pontífice: *los Sumos Pontífices / aita santu erromacoac (13)*.

8. Eranskina: Irudien bidezko edizio faksimilea

1. AZALA





1^a

Esencia

Erreguine aragui eta
 Jangricoen ama, sure coroa
 gustis preciosoen blengo ese-
 lencie da, isensiniala escojidia
 andra gustien artian Jangricoen
 semera ama gustis dichosarat.

Hu. N^o

2^a

Erreguine gustien Erreguine
 eta Jangricoen ama, sure coroa
 e sagraduun bigarren esencia
 da trinidad gustis sartue
 edertu senduse la cabu buya
 co doe probilijun eta

birtutes beste criaturis in
canis quibus. Her Ma

3^a
Ereguim et Jangricaren
ama sui corva eraguim
ingarron esclencie da sor-
tusimata milagro et gra-
re a parteco bategas pecc-
ta originalen manchabagare
Her Ma

4^a
Ereguim et Jangricaren ama
ingui et Jangricaren ama

Iure eorū altūm lingua
 vni exlencie da, erregue
 artetix jagoa isen arren eta
 curriti milagro iregarrie
 isen arren isenninala criature
 gustietate unildiena. Do^{na} M^a
 Erregine^{za} alta eta sagrada
 eta Jangrievaren ama suxe eorū
 presioran borgaren exlencii
 da Jangrieu^{er} espiritu gra
 sile eta Virtutes sortu sile
 sugan Jangrieu^{er} sennā

munduen erredeñenoraes al
canjelu aragui baten erana-
gas beste bagane. Dos. No.

Ca

Erreguine gutis santa eta
Jangoicorren ama sure coroe
miragorrien seigarren ue-
lencie eta, emir senduela ar-
guitera seure seme Jangoicor-
coa mundolore eta naibaguenē
arean bagane Jangoias gutis
altise
berae laguntuta. Dos. No.

7a

Ereguine escofidia eta Jan
 goiwarren ama sure erroa argui
 suen saspiharren ueluncio da
 ama eguiareva ien basinian
 beru guelditu siniala egusque
 beva ban garbiago eta ar
 guiago donolla semea jaisba
 mo tenago jayotran eta jaja
 esquero. Deu 17^a

8^a
 Ereguine eta Jan goiwarren
 ama sure erroa estiman beru
 erin beru sartigarren ueluncio

da, eugui sendueta esegas
 bardinu da esin leien d'ichia Jangir-
 co gustis altuen semea alimen-
 tetaco sure bular gustis
 garbutan seugas virjinal
 prepiooagas. Her. 176^a

9^a
 Cructaco erreguine da Jan-
 goicoaren ama sure corra com-
 parau bere esin leianen
 federatrigaren eselencis da,
 eugui sendueta d'icha sorio-
 necoa Jangicoraren semea se-
 choa eguine sure corture

entregan eta bere amatasu
 nesco ardupean bacarric seun
 quenean. No. 2^a No. 3^a

10

Erregiñe gustis bigun eta
 Jangoiaren ama sure arve
 gustis aberatzen amargaren
 erelencie da, enqui sorduela di
 cha gustis altue Jangoiaren
 semeae suri agoa betean ama
 queitutea bere amedioagaitie
 eracusten entzesala bere ameto
 co misterio eractuac No. 2^a No. 3^a

11^a

Ereguine gustis bedinguetea
 eta Jangreivaren ama sure
 corva erreialaren amaica
 garen eselencie eta, sure seme
 gustis altue Jemusec crutzean
 il eta anta eternogana
 joatorduan nombrau sendu
 esala Adanen seme alaba
 gustien ama eta consolatza Nazat.

J. M. ^{er} M.

12^a

Ereguine gustis poderosea
 eta Jangoiwaren ama suve
 erroa gustis gloriosoen ~~amiga~~
 amabigarren uelencie da suve
 amodioseo motza bigunen bitar
 tes esen siniala altzauce cerul
 tace angueruen artetic gova
 go gorpuz da anima trinida
 de santimen tronuen albo
 an coronetan sendasala crea
 ture gustien jabe eta ereguine.
 Hec No^a

Ofrecimentue
 Once amabi abemarioe Ofrecie
 tan deutzadaz maria virgin
 gustis santuen corvaren ama
 bi eselencies seivneri erre gutu
 ten deutzadaz isendule guere
 re bitantes bere seme gustis
 presioso eta guere Jaur Jesu
 cristogaz emon daigun jubiliu
 eta guere pecatu gustien par
 casione baita bere indulje
 ciec eta parcamen aite santo

Emmaeuae cristinau fill.
 gustiei onec abemarioe emesi
 tan ditaesan bawchean emor
 nic dauquesanae Virjine santa
 beroni ewegituten cleutzegule
 fere mesesimentuec eta
 unteciec eliniale amediantte
 alcansan deigule biritza om
 talgas eriotza ombat. amen.
 mmmmmmm

De la corona de las doce
estrellas de Maria san-
tissima para los ejercicios
del mes de Mayo. y novena
a su coronacion Santisimo e
inmaculada.

Camun 1 de Enero
1902

14. ORRIALDEA







9. Eranskina: Gaztelaniazko argitalpenaren faksimilea


Ulpiano Uriarteren *Libro de las eselencias* eskuizkribuari dagozkion gaztelaniazkoaren zatien argitalpen faksimilea.


Liburuaren lehen orri biak











10. Aipamenak

- Cid Abasolo, K. (2014): Sareko euskal gramatika
<http://www.ehu.es/seg/aurkezpena>
- Devocionario Católico, Otoitz bildumak (2014):
<http://www.devocionario.com>
- Larrea, A., Rekalde, J. (2011): Arratia inguruko
berbetearen deskribapen laburra in *Arratia inguruko
Hiztegia*
- Larrea, A., Rekalde, J. (2011): *Arratia inguruko
Hiztegia*. “Geure Berbategie” Proiektua. Beta
Ediciones. 2.ed. Bilbo.
- Mitxelena, L.(1985). *Fonética histórica vasca*.
3.edizioa. Seminario Julio de Urquijo eta Gipuzkoako
Foru Aldundia. Donostia
- Moliner, M. (2014): Diccionario online María Moliner
Real Academia Española (2014): Diccionario
<http://rae.es/recursos/diccionarios/drae>
- Urgell, B. (2001): *Fr. Pedro Antonio Añibarro
"Gueroco Guero"*. Edizio kritikoa. Euskaltzaindia,
Bilbo.
- Villasante, L. (1976): *Sintaxis de la oración compuesta*.
Editorial franciscana. Arantzazu, Oñate.
- Ziarrusta, M. P. (1991): *Jesu Christoren lau
evangelioac batera alcarturic*. Pedro Antonio
Añibarro. Labayru-BBK, Bilbo.